

Saint John Perse

Laudorio

Igaite

Haizete

Eloges, Anabase, Vents, Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskarara itzulirik

*

LAUDORIO

ATHEAN IDATZIA

Badut larru bat tabako gorri edo mando kolore,
badut buruko bat sabuka bihotzez oihal xuriz estalia.
Ene urgulua hau da: guziz ederra izan dadin ene alaba emazte
beltzeri manatzen dauenean,
ene bozkarioa, beso bat ager dezan xuri-xuria bere oilo beltxen
erdian;
eta eztaadin ahalge izan ene matela ile-pean latzaz, iztildurik sartzen
nizanean.

*

Eta bademazkot lehenik ene zaharoa, xahakoa eta burukoa.
Irriño batez ordaintzen nau ene aurpegi ura darionaz; eta bere
begitartera baderamatza ene eskuak, kako amanda, kafe bihia hastaturik
urintsu.

Eta gero badakarzkit buruko oihal azantz egile bat; eta ene ilezko
zaia; ur garbia ene ixil hortzen xahutzeko;
eta hortxe dut askattoko ura; aintzirako ura badantzut ere urtegian.

*

Gizon bat gogor da, ezti haren alaba. Egon dadila beti
hura etxera itzultzen denean etxe xuriko mail gorenean,

eta bere zaldia belhaunen tinkiaz arintzen duela,
ahatziko du aurpegiko larru guzia barnera deramakon sukarra.

*

Maite ditu ere ene zakurrak, ene zaldi lerdenenaren deia,
eta bidexka xuxenaren buruan ene gatuaren ikustea etxetik
jalgitzen zimino emearekin batean...

gauza oro aski direnak oihal-untzien oihalez bekaizti ez izaiteko
burdin-orstozko hegaztegiaren heinean ikusten baititut itsas-
gainean zero bat iduri.

HAURZARO BATEN OSPATZEKO

« *King Light's Settlements* »

I

Palmak...!

Orduan orsto-musker-urean mainatzen hinduten ; eta ura ere
iguzki muskerrez zian ; eta hire amaren sehiek, neska handi dirdiratu, bere
zango beroak hire ondoan higitzen ziteztean, ikharan hindagola...

(Bizimolde gora batez mintzo niz, orduan, zaien artean, argi
itzulikari batzuen erreinuan.)

Palmak ! eta erroen zahartasunaren
eztitasun hura... ! Lurrak

orduan gorrago izan nahi ukan zuen, eta zeroak barnago hartan
zuhatz handiegi batzuek, xede ilun batez akiturik, antolamendu ezin argitu
bat baitzegiten...

(Amets hau egin dut, asmuka nindabilala: egoitza segur bat oihal
suharren artean.)

Eta goien
erro makurrek ospatzen zituzten

mirazko biden joaitea, uztai et' arkuen aurkiberritzea
argiak ere orduan, egintza garbiagoez emankor, idekitzen zuen
hartan itzalgabeko soin bat ereman duketan erresuma xuria...
(Bizimolde gora batez mintzo niz, behin, gizon batzuen eta haien
alaben artean, halako orsto bat ahoan xehatzen baitzuten.)

Orduan, gizonek bazuten
aho bat larriagoa, emaztek bazituzten beso eztiago batzu ;
orduan, gu bezala erroez alhatuz, abere handi ixil batzu nobletzen
ziren ;
eta itzal gehiagoren gainera luzeago ziren betespalak goititzen...
(Amets hau egin dut, erlikarik utzi gabe suntsitu gitu.)

II

Eta amaren sheiak, neska handi dirdiradunak... Eta gure betespal
alegietakoak... Oi

argiak ! oi fagoreak !

Gauza oro izendatuz, eratsi nuen handi zela, ihizi oro izendatuz,
ederra zela eta ona.

Oi ene lore handien

Ezin aseak, orstatze gorriaren erdian, ene mamutxa musker
ederren guzien iresten ! Lili-flokek baratzean bazuten etxeko
ilherrien usaina. Eta arreba ttipi-ttipi bat hila zen : haren zur-gorritzko khutxa,
usainondua, ukana nuen hirur gambaretako mirailen artean. Eta xori-ulia
etzen hil behar harri batez... Baina lurra gurtzen zen gure jostetera sheiak
badagien bezala,

etxean baldin bagaude kadera baten ukaiteko dretxoa baduen hura.

... Landaretzetako khartsua, oi argiak oi fagoreak !...

Eta gero uli hek, uli mota hura, baratzeko azken estaiara, argiak
kantu egin balu bezala baitziren !

... Gatzaz orhoit niz, amaño horiak ene begien izkinan xahutu
behar ukan zuen gatzaz orhoit niz.

Azti beltza sukaldean ari zen zuhur-hitz erasten : « Mundua pirago
bat bezala da, itzulika eta itzulika, gehiago ezpaitaki haizeak irri egin nahi
zuenez ala nigar... »

Eta berehala ene begiak ari ziren nahiz eta

ur dirdiratuen arteko mundu leriatu bat marrazkitu, bazagutzan
zuretako masta leuna, gabia orsto-pean, eta hagak eta belazurrinak,
aihenezko obengak,

han luzegiz, loreak

gelditzen baitziren perrukettoen garrasietan.

III

... Gero uli hek, uli mota hura, eta baratzeko azken estaia...
Deitzen naute. Joanen niz... Asmuka mintzo niz.

- Haurzaroa ezpada, orai eztenik zer zen orduan ?

Ibarrak ! Maldak ! Bazen

ordenu gehiago ! Eta oro etzen leinuruzko erreinu eta muga baizik. Eta itzala
et' argia orduan gauza ber bat izaitetik hurbilago... Asmu batez mintzo niz...

Fruitua hesi bazterretan

eror zaitekeen

bozkarioa gure ezpainen hegian ustel ladin gabe.

Eta gizonek itzal gehiago zuten aho larriago batekin higitzen,
emaztek beso emeago batzuekin amets gehiago.

... Handi bitez ene zango-besoak, eta hazta bezate, adinaz hazirik !
Gehiago eztut jakinen eihera eta kanabera gune bat ere, haurren ametseko,
bazatekeela horrela banakatua ur bizi eta kantarietan... Eskun

kafea sartzen zen, ezker manioka

(oi plegatzen diren oi halak, oi gauza laudagarriak !)

Eta alde huntan ziren zaldi ontsa markatuak, mando ile motzak,
eta hantxetan idiak ;

hemen zaharoak, hor Annaô xoriaren garrasia – eta hor ere
eiheran kanaberen zauria.

Eta hedoi batek

ubel eta hori, ikako kolore, bapatez gelditzen bazen su-mendi
urrezkoaren koronatzan,

bere-izenetik-deitzen-zituen, etxolen barnean,

sehiak !

Haurzaroa ezpada, orai eztenik zer zen orduan ?...

IV

Eta oro etzen leinuruzko erreinu eta muga baizik. Eta abelaldeak
goiti zoazin, behiek bazuten bateria-zirobaren usaina... Handi bitez ene
zango-besoak

hazta bezate, adinaz hazirik ! Orhoit niz nigarrez

egun ederregi bateko izialdura handiegitan, izialdura
handiegitan !... zeru xuriegiaz, oi ixila ! sukarrezko so bat bezala gartu
baitzen... Nigarretan nago, nolako nigarretan, esku zahar ezti batzuen
ahurrean...

Oi ! hipa huts bat da, sokorririk nahi eztena, oi ! ezta hori baizik, bekokia leriaren baita jadanik goizeko izar gotor batek bezala.

... Zein ederra hire ama, zein xurpail
hain handi eta unhatua, gurtuz,
bere laztozko edo iguzkizko xapel phizua segurtatzen zuenean,
zigina orsto bikun bat gainean,
eta, itzaletara eman amets bat zilatuz, musulinen argiak zianean
hire loa betetzen !

...Ene sehia odol-nahasia zen eta bazuen gormio usaina ; ikusi dut
beti bazirela haren bekokian izerdi dirdiratu baten perlak, begien inguruan –
eta hain ephel, haren ahoak bazuen arrosa-sagarren gustua, ur-errekan,
eguerdi aitzin.

...Baina amaxo horailtzen ari zenaz
eta hain ongi bazakienaz sistulitxen ausikiaren arthatzen,
erranen dut eder dela, galtzerdi xuriak badirenean, su-lore zuhurra
betespal luze
bolizkoetara.

...Eta eztitut Haien mintzoak oro ezagutu, ez ezagutu haien
emazteak oro, zerbitzatzen zuten gizonak oro egoitza gora
zurezkoan ; baina luzaz oraino gogoan ukanen ditut
begitarte ozengaitz batzu, papaia eta enegu kolore, gure kaderen
gibelean gelditzen baitziren izar hil batzu iduri.

V

...Oi ! badut zer lauda !
Ene bekokia esku hori batzuen artean,
bekokia, orhoit hiza gauazko izerdiez ?
gauerdi sukarrak hustuaz eta urtegi gustu batez ?
eta argitze urdineko lorez goizeko itsas-artetan jantzan
eta eguerdi orduaz sistulitxa bat baino ozenago, eta margozko
itsasoak egotzi geziez... ?

Oi badut ! Oi badut zer lauda !
Baziren kaian untzi gora musikadun batzu. Baziren zur-beltzezko
ezpondaburu batzu ; zurezko fruitu batzu zartatzen... Baina kaian ziren untzi
gora musikadunez zer egin da ?
Palmak... ! Orduan

itsaso sineskorrago bat abiatze ezin ikusi batzuez betea,
mailkatua zero bat bezala sagardoien gainetik,
asetzen ari zen urrezko fruituz, arrain ubelez eta xoriez.
Orduan, usain on goxoago batzuek, galluru dohatsuenetan ibilki,
bertze adin bateko hats hartaz hots bazegiten,
eta kanela-ondoaren joko hutsaz aitaren baratzean – oi alegiak !
ezkatzaz eta harmaduraz ospatsu mundu nahasi bat xoratzen zen.

(...Oi badut zer lauda ! Oi ixtorio emankorra, oi nasaitanusezko
mahia !)

VI

Palmak !

eta egoitza kraxkariaren gainetik garrezko hainbertze gezi !

...Mintzoak harrabots argi bat ziren haize-pean... Aitaren
untzixkak, seriosik, itxura handi xuri batzu ekhartzen zituen : behar bada, oro
har, Aingeru ile harrotu batzu ; edo osasuneko gizon batzu, oihal ederrez
jantzirik eta burua sabuka-pean (aita bezala, noble izan baitzen eta
jendetasunekoa).

... Ezen goizean, Ur hasaren alhor xurpailetan, Sartaldeko luzaran,
ibiltzen ikusi ditut Printzeak eta haien Suhiak, lerro gorako gizon batzu, oro
ontsa jantziak eta ixil, eguerdi aitzinean itsasoa Igande bat baita loak hartan
Jainko baten gorputza hartu duena, zangoak plegatuz.

Eta zuzi batzu, eguerditan, goititu ziren ene ihesaldietako.

Eta badut uste Arku batzu, zur-beltzezko eta burdin-zurizko Sala
batzu arrats oroz phiztu zirela su-mendietako ametsetan,
gure eskuak juntatzen zirelarik bestetako jantziekilako jainko-
aizunaren aitzinean.

Palmak ! eta erroen zahartasunaren

eztitasun hura... ! Ekhaldeko hatsek, urxoek eta gatu-eme itsas-
gaztena koloreak

orstatze kharatsa zilatzen zuten, hartan, Uholde usaineko arrats
bateko gordinean,

ilargi gorraxta eta muskerrak dilindan baitzauden manga batzu
bezala.

*

... Oseba bada amari mintzo zizazkon ahapetik. Zaldia atheari estekatua zuten. Eta Etxeak bazirauen, zuhatz lumadunen azpian.

1907

LAUDORIO

I

Haragiak xigortzen ari haizera, saltsak moldatzen
eta khea badoa bide larruetan goiti eta bazabilana batzen du.
Orduan Ameslari matela zikina
jalgitzen da
bortizkeriaz, amarruz eta zapartaz dena marratua den amets zahar
batetik,

eta izerdiz aphaindua, haragiaren usainera
jausten da
emazte bat iduri badabiltzalarik : bere oihalak, linjeria guzia eta ile
nahasiak.

II

Zaldi bat maitatu dut – nor zen ? – ontsa behatu dauta bekora,
xerloen azpitik.

Haren sudur zilo biziak ikusteko bi gauza eder ziren - begi
bakoitzaren gainean hantzen den zilo bizi harekin.

Laster egina zuenean, izerdi zen : dirdiratzea ! – eta ene haur
belhaunen azpian ilargiak zapatu ditut haren sahetsetan...

Zaldi bat maitatu dut – nor zen ? – eta zenbait aldiz (ihizi batek
baitaki hobeki zein indarrek gituzten ospatzen)

bere jainkoetara goititzen zuen burdin-horizko buru bat : ufaka,
zain girtain batez zilokatua.

III

Urguluaren neurkadak munho gorrietarik jausten dira.

Apho-harmatuak isas-artetan amiltzen izar beltzaran batzu bezala.

Itsas-barne batzuek amets bat badagite haur buruez betea ...

Izan hadila gizon irri-egile begi ezti bat,
ixilik irriz betespalaren hegal ezti-pean, airatzearen betegina (eta
betilearen bazter gelditik itzultzen da ikusiak dituen gauzetara, lillurazko
itsasoaren bidetan abiatuz... eta betespalaren bazter gelditik

egin dauku irla agintza bat baino gehiago,

gazteago bati mintzo zakon hark bezala : « Ikusiko duk ! »

Eta hura da untziko jabearekin hitz-hartzen.

IV

Zeruaren urdina ! gure ihiziak oiheri batez beteak !

Atzartzen niz, Anibaren udare beltza gogoan bere kuxko
kalitzadun motzean... Ha ontsa ! karamarrek jan dute fruitu guriekilako
zuhatz oso bat. Bertze bat orbainez estalia da, loreak, jateko hautak,
enborrean heldu zizazkon. Eta bertze bat, eskuaz ezin hunkia da,
lekukotasunez norbait hartzen den bezala, berehala uli hetazko nigar ixurtzen
hasi gabe, margoak !... Zinaurriak badoaz bi aldetara lasterka. Emazte batzu
bakar-bakarrik irriz ari dira abutilonetan, abere adardunen zirineko erabiltzen

diren lore hori-beheretik-gorrindolez-titatu hetan... Eta setsuak badu usain on bat. Izerdiak bide hotx bat hartzen du. Bakarrik dagon gizon batek sudurra besoko pleguan ezar lezake. Ur-bazter horiek hantzen dira, eztei bitxietako mamutxa meta batzuen azpian lehertzen. Arrauna ninikatu da arraunariaren eskuan. Zakur bizi bat krako baten puntan amuzki hoberena da marrazoarendako...

- Atzartzen niz Anibaren udare beltza gogoan ; orstoen besapean lore batzu multzoka.

V

... Ur ezti horiek eznez dira bada
eta goizeko bakartasun gurietan ixurtzen ari den guzia.
Untzi-bizkarrak, argitu aitzin, ametsetarik goizaldeko nahastura bezala den ur batez ikuzirik, badagi zeruaren itxuratze eder bat. Eta egunaren haurzaro adoragarria, oihal bilduen treilatik, ene kantura berera jausten da.

Haurzaroa, ene maitea, etzena hori baizik ?...

Haurzaroa, ene maitea... begiko erhaztun bikun hori eta maitatzeko errextasuna...

Hain da ezti eta hain ephel ere,
hain da ere iraunkor,
nun hor izaitea bitxi baita, eskuaz egunaren errexarekin nahasirik...

Haurzaroa, ene maitea ! amor emaita baizik ez... Eta erran duta orduan ? Eztut gehiago nahi oihal horietarik ere,

higitzen, hor, garbi-ezinean, goizeko hoxtura muskerretan... Eta erran duta, orduan ? ezta zerbitzu egin behar baizik

soka zaharrez bezala... Eta bihotz hori, bihotz hori, hor ! bizkarretan herrestan, xumeago eta salbaiago eta, lamaza zahar bat baino ere, ezinduago...

VI

Eta bertze batzu igaiten dira, bere aldian, untzi-bizkarrera eta ni othoizka, berriz ere, oihala eztadin zabal... baina gauargi hori, hiltzen ahal duzue...

Haurzaroa, ene maitea ! goiza da,
gauza ezti batzu ari dira othoi-othoizka, hala nola kantatzeko hastioa,

eztiak ahalgea bezala, ezpainetan daldaratzen baita, orrazez erran diren gauza batzuen,

oi eztiak, eta othoi-othoizka, hala nola arraren mintzo eztieta gurtzen ari denaren gana bere gogo erlatsaren gurtzea onhartzen badu...

Eta orai galdegiten dautzuet, eztea goiza... hatsaren errextasun bat eta egunaren haurzaro oldarkorra, begiak luzarazten dituen kantua bezain ezti ?

VII

Zeru apur bat urdintzen ari gure azkazaletako maldan. Sua hartan indartuz doan eguna beroa izanen da. Huna gauza nola den izanen :

Xirrintxa bat leze gorri-bizietan, osina bozkarioaren basa-idiez oinazpikatua (oi bozkario ezin errana argiaz ezpada !) Eta eriak, itsasoan, erranen du

untzia geldi dadin iker ahal dezaten.

Eta asti handi orduan gibelego guziendako, ixilaren oldeak bekokietara itzultzen zauzkigula... Jarrikitzen zen xori bat, airean eremena da buruen ginetik, masta huts egiten du, badoa, urzo zango gorra batzu guri erakutsiz, Cambyse bezain basa eta Assuerus bezain ezti... Eta bidaiari gaztenak, hirur-laurdenka jarritz karelgainean : « Nahi nauzue bada itsasoko ithurriez mintzatu... » (eras dezan othoizten da)

- Bitartean untziak badagi itzal bat urdin-musker ; bakezkoa, gogo-argia, azukrekiek hartua han alha baitira

multzo malgu bihurturietan

arrain horiek airea kantuan zehar bezala.

...Eta nik, osagarriz betea, hori badakusat, banoa eriaren ondora eta hori erraiten daukot :

eta horra nun hastio nauen.

VIII

Salerosleari itsas-alderako atherbea, eta hegaztegia almanaka egileari !... Baina bertze batendako oihal-untzia arno beltzeko itsas-adarren zolan, eta usain hori ! zur idorraren usain amikatu hori gogora-arazten dituela Iguzkiaren orbainak, izar ikertzaleak, herioa...

- Untzi hori gurea da eta ene haurzaroak bururatzerik ez.

Izendatzen ikasten dautzaten arrain ainitz ikusi dut. Bertze gauza ainitz ikusi, Ur betean baizik ikusten eztenik ; eta bertze batzu hilak ; eta batzu alegiazkoak... Eta ez

Salomonen hegazterrenek, ez Ethiopiako jaunen ezpata-uhalean
margolatua den loreak, ez Montezumak giza-haragiz hazi duen lakoinek,
burdin-gorritzko jainkoen aitzinean
 eztute kolorez gäinditzen
 untzi-hegi gäinetik goititu den arrain sapartsu hori ene ama gazte
‘ta aharrausika ari denaren jostatzeke.

...Zuhatz batzu usteltzen ari ziren arno-beltzeko itsas-adarren
zolan.

IX

...Oi ixil bada ! Lurreratzeaz gehiago
mintzo bazirezte, nahiago dautzuet erran,
neure burua hor egotziko dut zuen begi aitzinean.

Oihalak badio hitz idor bat, eta erortzen da. Zer egin ?
Zakurra urera jauzten da eta badagi Arkaren itzulia.
Amor eman ! euskarriak bezala.

...Laxa ezazue xalupa
ala ez egin, edo ere delibera
mainatuko dela... Ontsa zata hori ere.

...Uraren barne guzia amesten da berriz oihalaren eremuetan.
Zoazte, ixtorio eder bat da hor moldatzen ari
- oi ixilaren ezpondea bere neurri luzetan hedatzen !

...Eta ni mintzo nizazuenak, ezer eztakit, ez azkarrago, ez
buluziagorik,
ezpada untzian zeharka, arrizaz marraturik gure bazterrean, gure
muga,
oihal-handi suminkor buru-muinaren kolorekoa.

...Egintzak, bekokiaren bestak, eta garondoarenak !...
eta oiuhu horiek, eta ixil horiek ! eta berri horiek bidaian eta mezu
horiek uhainka, oi egunaren ixurtzeak !... eta oihalaren hor izaitea, arima
handi nekea, oihal bitxia, agerian berogarri, matela baten hor izaitea bezala...
Oi

ahokadak !... Zinez egoitza jainko baten zitzurrean dut.

X

Idien eta mandoen lurreratzeko,
urera emaiten dira, untzi-hegitik, urrean ohatu et' arrixinaz
thorratu jainko horiek.

Urak ospatzen ditu ! jauzten da !
eta kaian igurikatzen ditugu, zuzi ordeztolaxka batzu goitituz ; eta
begiak badaduzkagu bekoki horien izarrean itzaturik – hor dagolarik jendalde
oso bat buluzia, bere dirdira soinean, eta xuhurra.

XI

Itsas-zolako uhain batzu bezala
saldegietara ekhartzen dira burdinkizko orsto malgu batzu :
idorrak, daldaran, ixurtzen baitute, hartu eta, zeruaren aldapa oso bat.

Ikusteko, jar itsalean. Betzele, jeus ez.

Hiria aiherkunder hori da. Iguzkiak egozten du ur-golkoetara
ortzantz erasia bat. Erregosi untzi bat ondatzen ari da karrikako buru
malkarrean, bertze buruan, goiti konkortuz, olhetzen baita
ilherrietako errhautsetan.

(Ezen Ilherria da, hor, erresuma hain gora, harri-geldoizko
mazelan : hobiez zilokatua, zuhatzez landatua kazoar bizkarrak iduri duten
zuhatzez .)

XII

Badugu aphezzeria bat, gisua.

Ikusten ditut Zodatzaletan oihal-etxalde bateko suak...

- Ixtripuan hil direnak, ihizi larrutu batzu bezala,
zingazko khutxa horietan herriko Jaunek ekharriak dira ur
muskerrak hesten duen bide nagusitik (oi ikurrinak harren bizkarrak bezain
ixurkatuak, eta haurzaro bat beltzez urrezko ezkur batzuetarik dilindan !)
metan ezarriak, ephe batendako, Merkatuko plaza estalian :
han zutik
eta bizi
eta irrisaren usain oneko zorro zahar batez jantzia,
ilea ahari beltz batena duen beltz bat handitzen baita maskor
batean oiuhu egitera doan profeta iduri – zeru hedoez izurtuak iragartzen
duela arratseko
bertze lurr-ikara bat.

XIII

Arrain burua irkaitzez
Gatu hilaren errape hantzen ari denearen artetik – musker ala malbakara ? – Ilea, ezkata kolore, urrikalgarri du, lekatua,
nexka ttipi hezurtsu biziki zahar batek murtxatzen duen xerloa bezala, eskuak legenez zurituak.
Zakur eme gorraxtak baderama herrestan, behartuaren bizarrera, ugatz haragieria oso bat. Eta on-onen emazte saltzalea
joka ari
lezafinekin hauen airatzea egunaren ausikiak itsasoaren bizkarrean bezala baita. Haur batek badakusa hori,
hain eder
nun erhiak ezpaitezazke bil... Baina edan den kokoak eta hortxetara egotzi, soingainaz arindurik oiuhu badagien buru itsu,
ur-bidexkatik baztertzen du
urinez eta gernuz zirriztatua den ur gorrindolen ezin ederragoa, hartan saboinak bilbatzen baitu amiamarro sarea bezalako zerbait.

*

Kornalinazko lauzadan, neska bat Lidiako errege bat bezala jantzia.

XIV

Ixil-ixila doa izerdia eta orstoaren hegi mehetarano heltzen.
Huna lastozko zero bat hara besagainka zuziaren egozteko ! oi egozpena !
Nik aldiz, oinak gibelatu ditut,
Oi adixkideak ezagun etzituztenak nun zirezte ?... Eztuzuea hori ere ikusiko ?... ur golkoak zirtaka, burdin-gorri gurizko ur eder batzu hetan eguerdi zimbala phorroskariak zilatzen baitu bere lezeko sukarra... Oi ordua da

hartan hiri beroegietan, treila hormatuen azpiko korroila liskatuen zokoan, urak baitario urtegi hetsi
eguerdiko arrosa muskerrez bortxatua... eta ur hasa amets bateko mamiaren berdina da, eta Ameslaria hor etzana da, eta badatxika tronadurara bere begi beltz gerlaria...

Eta Frailen ikastetxetik etxera doan haurrak, amultsu ogi beroa usaintzen duten Harresien amultsutasunari jarraikiz, badakusa han itzultzen den karrikaren buruan

itsaso nehorgabea arrain oihukatze bat baino harrabostunago. Eta azukre dupelek badariote, markazitazko Kaietan, orstaildura handietan petrolaz margolatueta ;

eta ihizi larrutu batzuen ekharle beltzak belhaunikatzen dira Harakindegri-Modeletako faianzetan, hezur eta indar-hats zama bat hustuz,

eta burdin-horizko Azokategiko itzul-gunean, hartan arrainak dilindan baitaude eta bere burdinazko orstoan kantuz entzutzen baita, gizon larru-soil batek, gotoin-oihal horiz, badagi oihi bat : Jainkoa niz ! eta bertze batzuek : eroa da !

eta bertze bat erhailtzeko gutiziaz hartua Ur-Gaztelura buruz abiatzen da pozoinetzko hirur kanika eskuan : gorra, musker, urdin-ilun.

Nik aldiz, oinak gibelatu ditut.

XV

Haurzaroa, ene maitea, arratsa ere ontsa maitatu dut : atheratzeko ordua da.

Gure sehiak sartuak dira zaien lore-orsto inguruetan... eta guk leiho saretetara tinkan, gure adaska dirdiranten azpian, ikusi

dugu nola leun, nola hasik, besoen puntan goititzen duten zaiaren erhaztun guria.

Gure amak jautsiko dira, Andere-Laliaren-belarraz usainonduak... Eder dira haien lephoak. Hoa aitzina eta jakin-araz ezak : Ederrena ene ama da ! – Entzuten ditut jadanik

oihal gogortuak

gambaretan ortzi azantz ezti baten herrestatzen... Eta Etxea ! Etxea ?... handik atheratzen da !

Gizon zaharra bera jelos lizateke ene kalaka pareaz

eta eskuetan dagiten harrabotsaz, ilar-biribil aihen batek bezala, ala gilandinak ala mukuinak.

Herriko zaharrek korroilara atheratzen dute kadera bat, usuaren koloreko puntxa batzu edaten dituzte.

XVI

... Herrian zahartuak direnak dira goizenik jeikiak leihoaren bultzatzen eta zeruari beha, margoz aldatzen ari den itsasoari

eta irleri, erranez : eguna ederra izanen da argitze hunen araura.

Berehala eguna da ! eta hegaztegieta burdin-orstoa phizten da ikaretan, itsas-arte a aldixartzeari emana da, zerua aldarateari, eta Ipuinlaria beilara sartzen !

Itsasoa, irlen artean, lizunkeriaz arrosa-kolore; eztabadatzeko gai da haren atsegina, burdin-gorritzko beso-uztai multzo batzuen ordainetan ukan baita !

Haut batzu ur-bazterretara lasterrez ! zaldi batzu ur-bazterretara lasterrez !... miliun bat haur betespalak lore-parasol batzu bezala deramatzatela... eta igerikariak

zango bat ur epholean du baina bertzea ur-pikar hotx batean phizu; eta gonfrenak, itsas-asunak,

lore muskerrekilako asuna eta murre zaharren bizarra diren pilea tustutsu horiek

erotzen dira hegaztegieta, ithaxur bazterretan,

ezen haize bat, urtea baino hotxago, jeikitzen da, urdintzen ari diren irlatako asketan,

eta oldez badoa askaitz aphal hauetarano, gure etxeak, badario gizon zaharraren golkoan

oihalezko atherbetik zurdaz beteak den leku hartarano bi ugatzen artean.

Eta eguna hasia da, mundua
ez hain zaharra nun ezpaitu bapatez irri egin...

*

Kahe usainak orduan du mailaldea igaiten.

XVII

« Ene orraztatzetik geldituko zirenean, zure hastiatzetik geldituko niz. »

Haurrak nahi du athe alhazean orrazta dezaten.

« Enezazula iletarik horrela thira. Bada aski jadanik hunki nezaten behar ukaiteaz. Orraztatua ukanen nuzunean, hastiatuko zitut. »

Bitartean egunaren zuhurtziak zuhatz eder baten ixura hartzen du eta zuhatz leriatsuak

xori erhitara bat galtzen duela

zeruko aintziretan musker bat hain ederraz ezkatatzen da nun muskerragorik ezpaita ur-zimitza baizik.

« Ezazula iletarik hoin urrun thira... »

XVIII

Orai utz netzazue, banoa bakarrik.

Atherako niz, baitut zer egin : mamutxa bat ene beha dago hitzhartzeko. Bozkariatzen niz

begi handi aldexkatuaz : dena izkina, ustegabekoa, burontzaren morkoitza iduri.

Edo batasun bat egina dut harri zain-urdinekin ; eta utz nezazu berdin,

jarririk, zure belhaunen adixkidantzan.

1908.

IGAITE

Potro bat sortzen ari zen burdin-horizko orstoan azpian. Gizon batek ezarri zauztan bihi kharats batzu eskuan. Arrotza. Bazoana. Eta horra nun aiphu diren ene nahitarako bertze herri-alde batzu... « Agurtzen zitut, alaba, urteko zuhatz handienaren azpian. »

*

Ezen iguzkia Lehoinean sartzen da eta Arrotzak erhia ezarri du hilen ahoan. Arrotza. Bazoana. Irriz ari zena. Belar batez mintzo baitzaiku. Ha ! hainbertze ufa herrialdetan ! Gure bidetan zenbat errextasun ! zein atsegingarri zatan trompeta, eta luma jakinduru hegalaren eragozpenean !... « Ene arima, neska handia, zure arak bazinituen gureak eztirenak. »

*

Potro bat sortu zen burdin-horizko orstoan azpian. Gizon batek ezarri zauzkun bihi kharats horiek eskuan. Arrotza. Bazoana. Eta horra harrabots handi bat burdin-horizko zuhatzetan. Mundrun eta arrosak, kantuaren emaitza ! Gambaretan orzantza eta xirulak ! ha ! gure bidetan hainbertze errextasun, eta Arrotza bere aretara lur osoko bidetan hara !... « Maite zitut, alaba, urteko zaia ederrenaren azpian. »

IGAITE

I

Hirur urtaro handietan jartzen nizala ohorerekin, uste ona dut ene legea hartan ezarri dutan lurraz.

Goizean harmak eder dira eta itsasoa. Hexurrik gabeko lur gure zaldier utziak

zeru ezin zikindu hau uzten. Eta Iguzkia ezta izendatua, baina haren botherea gutartean

eta itsasoa goizean izpirituaren aitzin-uste bat bezala.

Botherea, kantatzen huen gauazko gure bidetan !... Goizaren haste garbietan zer dakigu ametsaz, gure lehentasunaz ?

Urte batendako oraino zuen artean ! Bihiaren jabe, gatzaren jabe, eta gauza publikoa haztakin zuzenetan !

Eztut bertze ur-hegiko jenderi hel eginen. Eztitut marratuko aldapetan

hirietako auzoalde handi batzu korailen azukreaz. Baina badut zuen artean bizitzeko xedea.

Oihal-etxetako alharzean ene ospe guzia ! ene indarra zuen artean ! eta gatz bat bezain garbiko gogamenak oinarriak egunean jarriak ditu.

*

...Zuen ametsetako hirietan nindabilan bada gelditzen nuela zuen merkatu hustuetan ene arimarekilako solas garbi hau, zuen artean ezin ikusia eta haize betean elhorri su bat bezain usu.

Botherea, kantuz hindagon gure bide mirazkoetan !... « Gatzaren atseginean izpirituko geziak oro... Gatzaz phiztuko ditut gutziaren aho hilak !

Nork ere ezpadu, egarria goretsiz, ondartzetako ura kaska batean edan,

hartan sineste guti dut arimaren solaseko... »

(Eta iguzkia ezta izendatua, baina gutartean da haren botherea.)

Gizonak, errhautseko jende ‘ta molde orotakoak, salerosteko eta astiko jende, mugetako eta urrungo jende, oi jende phizukoak leku hautako orhoitean ; haranetako eta ordokietako eta mundu huntako malda gorenetao jendeak gure ur-bazterren buruan ; aieru, hazi usnatzaleak, eta Sartaldeko ufen aithorleak ; bidexker, urtaroeer jarraileak, oihal-etxalde biltzaleak argitzeko haize mehean ; oi ur-begi bilatzaleak munduaren azalean ; oi arrazoin bilatzaleak, aurkitzaleak bertze norapait joaiteko,

eztuzue gatz azkarrago batez tratu egiten, goizean, erresuma eta munduaren khetan goratik dilindan dauden uren seinale batean, herritik joaitearen atabalek mugetan atzartzen dutenean,

ondartzetan ahaurrausika dagon betierekotasuna.

*

... Zaia garbitan zuen artean. Urte batez oraino zuen artean.
« Ene loria itsasoetan da, ene indarra zuen artean !

Gizonak, jende errhautsezko eta molde orotakoak, salerosteko eta astiko jendeak, mugetako eta nunbaiteko jendeak, oi phizu gutiko jendeak leku hautako orhoitean ; ibar eta ordokietako jendeak eta mundu huntako malda goienetakoak gure ur-hegien buruan ; seinalen, hazien usnatzaleak, eta Sartaldeko ufen aithorleak ; bidexker, urtaroeer jarraitzaleak, oihal-etxalde biltzaleak argitzeko haize mehean ; oi ur-begi bilatzaleak munduaren azalean ; bertze norapait joaiteko oi arrazoin bilatzaleak, oi aurkitzaleak,

eztuzue gatz garbiago batez tratu egiten, goizean, erresuma eta munduko khetan goraki dilindan dauden ur hiletako aitzin-mezu batean, herritik joaiteko atabalek phizten dutenean mugetan

ondartzetan ahaurrausika dagon betikotasuna.

*

... Zaia garbitan zuen artean. Urte batendako oraino zuen artean.
« Ene loria itsasoan, ene indarra zuen artean !

Gure zorier hitzemaña bertze ur-bazter batzuetako ufa hori eta,
haraindira badarematzala aroaren haziak, mende baten distira bere punttan
haztakinaren orratzean... »

Mathematikak gatzaren hormetan dilindan ! Poema han jartzen
den neure bekokiko gune sendikorrean, jendalde oso baten, mozkorrenaren
kantu hau izkiriartzen dut,

gure landegietara betiereko untzi-zola batzuen thiratzten !

II

Herri jendeztatuetañ dira ixil handienak, eguerditan larrothez
beteak diren herrietan.

Banabila, bazabiltzate malda gora garraxkadunekilako herri batean,
han ezartzen baita idortzen Handien xuriketa.

Urrats batez iragaiten dugu Erreginañen zaia, dena dentelaz bi
marra ilhunagoekin (ha ! emaztearen soin saminak nola dakien zaia baten
orbaintzen besapeko gunean !)

Urrats batez iragaiten Haren alabaren zaia, dena dentelaz bi marra
margo bizizkoekin (ha ! sugandilaren mihiak nola dakien zinaurrien biltzen
besapeko gunean !)

Eta ezta behar bada eguna joaiten gizon ber batek emazte baten
eta haren alabarendako su hartu gabe.

Hilen irri jakintsuna, xuri dezazkutela fruitu horiek !... Baina zer !
mundun eztea gehiago garaziarik basarrosaren azpian ?

Badator, munduko alde hortarik uren gainean gaitz handi ubel bat.
Haizea jeikitzen da. Itsas-haize. Eta xuriketa
abiartzen ! zatikatu den aphez bat bezala...

III

Garagarren uztan gizona jalgitzen da. Eztazagutan azkar norbait
mintzatu da ene hegazteñian. Eta Errege horiek ene athean jarriak. Eta
Embaxadoreak Erregen mahian jaten du. (Ase bitez ene bihitik !) Phizu eta
izarien Ikertzalea ibai ospatsuetan jausten da mota orotako mamutxaki
eta lasto xotxekin bizarrean.

Hoa ! hitaz harritzen gituk, Iguzkia ! Halako gezurrak erran
dauzkiguk !... Nahasmendu, etsaitasun emailea ! laidoz eta eskandalaz hazia,

oi Abailaria ! zarta-araz ezak ene begiko amanda ! Bihotza hasi zata bozkarioz tiutaka gisuaren edertasunen azpian, xoriak kantatzen du : « oi zaharraroa !... », ibaiak bere ohatzetan daude emazte oihu batzu bezala eta mundua da marro larra

gorriz margotu bat baino ederrago !

Ha ! zabalago orstatze horien ixtorioa gure harresietan, eta ura gure ametsetan baino garbiago, esker dadila, esker, amets bat ez izaitez ! Arima gezurrez betea dut, hala nola itsaso zalu azkarra elhe ederrera deitzen denean ! Usain indartsuak inguruatzen nau. Eta duda sortzen da gauzen egiazko izaitez. Baina gizon bati gozagarri bazako bere bihotzmina, egun argian ager dezatela ! eta ene aburua da hil dezaten, bertzela

jazarraldi bat izanen da.

Hobeki erranik : jakin-arazten dauzkagu gure izabazi ezin neurtuak. Itsaso ogendunek Itsas-hertsietan eztute juje hertsiaorik ezagutu ! Eta gizon arno batez loriatua, bere bihotz ohila eta uli beltzez estali bixkotxa bezain burrumbaria baderamala, hunelako elhe batzuen erraiten hasten da : « ... Arrosak, atsegin gorrindola : lurra zabal ene gutiziari, eta nork dauzko gaur mugak emanen ?... » Eta holakoa, holakoaren semea, gizon beharduna, badator seinalen eta ametsen menera.

« Bideak marrazkitzue arraza orotako jendeak hetan joan diton, aztaleko margo horia erakutsiz : printzeak, minixtroak, zintzurretik mintzo diren kapitainak, gauza handi batzu egin dituztenak, et' ametsetarik hau edo hori badakusatenak... Aphezak bere legeak ezarri ditu ihizietarako emazten gutziaren kontra. Gramatikalariak aire zabaleko bere eztabadatzen lekua hautatzen du. Josleak zuhatz zahar batetik dilindan ezartzen balusa biziki eder batezko jantzi berri bat. Eta barrabiletako minaz hartua den gizonak bere oihaleria ur garbian ikuzten. Mehakoilaren ongarria erre-arazten da, eta haren usaina arraunarirano heltzen bere alkian,

eta ezin goxoago zako. »

Garagarren uztan gizona jalgitzen da. Usain indartsuak inguratzen nau, eta Jabal-en baino ur garbiagoak badagi bertze adin bateko azantz hori... Urte garsoileko egun luzenean, belar-pean lurra goretsiz, eztakit azkarrik nor den ene hatzetan ibili. Eta hil batzuez ondartz azpian eta gernuaz eta lurreko gatzaz, huna nun egin den haren bihia xorier eman den ahotzaz bezala. Eta ene arima, ene arima harrabots handitan beilan herioaren ahetan – Baina Printzeari errok ixil dadin : gezien puntan gutartean

zaldi burhezur hori !

IV

Horrela dabila mundua eta eztut hortaz ongirik baizik erraiteko –
Hiriaren oinarritzea. Harri eta burdin-hori. Laphar su batzuek argi-hastean
hasik ezarri zituzten harri
handi musker dirdiratu horiek eta eliza, latrina zola batzu bezain
urintsu,

eta itsasturiak itsasoan gure khez hunkirik ikusi zuen lurra, gain-
gainerano, itxuraz aldatua zela (labaki su handi batzu itsas-zabaletik ikusiak
eta ur-bizi hartzeko lan horiek mendietan).

Horrela hiria oinarritua izan zen eta goizera izen garbi baten
ezpainkarietan ezarria. Oihal-etxe aldeak ezeztatzen dira mendixketan ! Eta
guk, hor girenak zurezko galerietan,

buru-has eta ontutsik munduaren hoxkuran,
zer dugu bada irriz, baina zer dugu irriz, gure alkietan, nexkato eta
mando leihorreatze batengatik ?

eta erraiteko zer da, argi hastetik, oihalen azpiko jendalde hortaz
guziaz ? – Irin ethortze batzu !... Eta untziak Ilion baino gorago zeruko
egazterren zuriaren azpian, barradera iraganik, gelditzen ziren

arsto hil bat igeri dagon gune hil hartan. (Ibai hits, zori gabeko
hortaz da erabaki behar, bere urinean lehertu larrepoten koloreko hortaz.)

Bertze ur-hegiko hots handi hotxean, arotzak bere suen jabe dira !
Azotearen zartek karrika berrietan orkiraka ixurtzen dituzte agertu eztiren
zorigaitzak. Oi mandemeak, gure ilunbeak burdin-gorrizko sabre-pean ! laur
buru bihurriek ukabilaren korropiloan badagite urdinera lili-mulko bizi bat.
Erotegi oinarritzaleak gelditzen dira zuhatz baten azpian eta gogoetan daude
leihorren hautuaz. Erakasten daute eraikuntzak nola itzuliak diren eta
zertarako : alde ohorekoa, alde itsua ; lateritazko galeriak, harri beltzeko
ezkaratzak, eta itzal arinezko mainutegiak liburutegietako ; atherbe hotx-hotx
batzu farmaziakiendako. Eta gero horra bankolariak bere giltzetan xixtuz ari.
Eta jadanik karriketetan gizon bat kantuz ari zen bakarrik, bekokian Jainkoaren
hitza thindatzen duten hetarik. (Mamutxen zirtakoak betiereko ondarkinen
auzoalde hortan !)... Eta ezta hau bertze ur-hegiko jendekin ditugun
antolamenduen zuek erraiteko lekua ; ura zahagietan ezkainia, portu lanetako
zaldieriaren egintzak eta printzeak arrain diruz ordainduak. (Haur ziminoaren
hiltzea bezain trixte batek – arreba gehien bat edertasun handikoa – galepher
bat eskaintzen zaukun zatin gorraxtazko oski batean.)

...Bakartasuna ! Itsas-xori handi batek erruten duen arraultze
urdina, eta bihikak goizean urrezko zitroinez oro trabatuak ! – Atzo zen !
Xoria joan zen !

Bihar bestak, oihuak, ethorbideak zuhatz lekadunez landatuak eta bidezaintzeko langileri a bazeramatzala argi-hastean palma eihar zati handi batzu, gaitzeko hegal batzuen ondarkinak... Bihar bestak,
portuko legegizonen hautatzeak, hiri-inguruetan ahokadak, eta, ekaitzen xitatze eztienez azpian,
hiri horia, burua itzalpean, bere nesken galtza-motxekin leihoetan.

*

...Heren ilean, mendixka hegietan zain zaudenek bere oihalak bildu zituzten. Emazte gorputz bat erre-arazi zen. Eta gizon bat aitzinatu zen Desertuaren mugara – haren aitaren ofizioa : berinazko untxi saltzale.

V

Ene arima urrungo egitekoetan hartuarendako, hirietako ehun su zakurren ehausiaz bizkortuak...

Bakartasuna ! gure alderdikari ergelek gure arak gorai patzen zauzkuten, baina gure gogoetak bertze harresi batzuetan jarriak ziren jadanik :

« Nehori eztut erran igurika dezan... Guziak hastio zituztet ezteki... Eta gutarik atheratzen duzuen kantu hortaz zer da erraiteko ?... »

Itsaso Hiletara ereman behar den idurizko jendalde baten buruzagi, nun aurki gure begiak ikuziko dituen ilunbeko ura ?

Bakartasuna !... Izar andana batzu badoaz munduko hegian, sukaldetan etxeko borobil bat bereganatuz.

Zeruko Errege Batuek gerla baderamate ene hegaztegian eta, hergoretako nagusi, gauko etzangiak hor ezartzen dituzte.

Joan nadila bakarrik gauaren hatsekin, Printze kitzikalarien erdian, Bielako izarren erorten erdian!...

Arima ixilean batua Emazte hilen mundrunarekin! Orratzez josiak gure betespalak! igurikatzea laudatua gure betile-pean!

Gauak badema bere esnea, ontsa begira bedi! eta eztizko erhi bat ibil dadila nasaiki emailearen ezpainen sahetsean:

“... Emaztearen emaitza, oi Sabatarra!... Arima gutienik xuhurra salatuz eta gauko urrin hutsez eremana,

ene gogoetetan goitituko niz ametsaren egintzen kontra; basantzarekin joanen, goizeko usain gezean!...

- Ha! izarra gauan jartzen zenean sehien eskualdean, baginakiena hainbertze azta berri

bazabiltzala jadanik desertuan Udako mugerkien ondotik?
“Argitzea, erraiten zinuen...” Itsaso Hilen bazterretan ikuzketak!

Urtaro neurrigabeen buluzirik etzan direnak betan jeikitzen dira lurraren gainean – betan jeikitzen eta badiote

mundu hau eroa dela!... Agurea betespalez higitzen da argi horian; eta emaztea bere azkazalean luzatzen;

eta potro lekatuak bere bidar bizarduna ezartzen du haurraren eskuan, hunek oraino ezpaitagi hari begi baten irezteko ametsik...

“Bakartasuna! Eztut erran nehori igurika dezan... Alde hortara joanen niz nahiko dutanean...” – Eta Arrotzak bere gogoeta berriez

osoki jantzia bere alderdikari batzu egiten ditu oraino ixilaren bidetan: begia heldar batez betea du,

hartan ezta gehiago gizakitik. Eta lurra bere hazi hegaldunetan, poeta bat bere solasetan bezala, bidaian da...

VI

Gure gobernu militarretan bothere osokoak, hats baten oihalez janzen ziren gure alaba usain-onduekin,

goien lekuan ezarri ginauzkon zorionari gure sareak.

Nasaitasun eta gozo, zorion! Hain luzaz gure basoak Memnonek bezala hormak hetan kanta baitzezakeen...

Eta zabalzetako izkinan zimizta nahasketa bat bidetik baztertuz, urrezko platera handi batzuek zerbitzuko nesken eskuetan ondartzetako asperra epaiten zuten munduko mugetan.

Gero izan zen Sartaldetik ufakoen urte bat eta, gure hegaztegi harri beltzez zapatuetan, itsaso zabaleko atseginari eman oihal bizi batzuen solasaldi oso bat. Zaldizkoek lur-buruetako hegietan hara, arrano dirdiratzale batzuek inguratuak eta alhatzen zituztela azten puntan eguraldiaren iraultze garbiak, itsasoetan emaiten zuten egunorotako suhar bat:

Bai! Ixtorio bat gizonendako, indar kantu bat gizonendako, zabalaren ikhara bat bezala burdinazko zuhatz batean!... bertze ur-bazter batzuetan eman legeak, eta emaztetarik ahaidegoak jendalde bizioz galduen baitan; herri handi batzu oihukatuz salduak iguzkiaren hedatze-pean, goi-ordokiak baketuak eta herrialdeak ixunean ezarriak arrosen usain ospatsuan...

Iaiotzean itxindi hortarik usnatu eztuten horiek, gutartean zer egiteko dute? eta bizidunekin harremanetan direla izan daitekea? “Zuen egitekoa da hor ez izaiten erregetasuna, ez enea...” Gu hor ginenek aldiz, hermugetan egin ginituen ohi gabeko ixtripuak, eta gure egintzetan indarren mugarano joanez, gure bozkarioa zuen artean bozkario biziki handia izan zen:

“Maldetan jarria den arraza hori badazagut: zaldizko aurdikiak bizitzeko behar diren lur-lanetan. Zoazte eta erranezue horier: lanjer izigarri baten menean zirezte gurekin! egintza zenbaki ez nuerri gabeak, borondate

ahaldun eta hondatzaleak eta gizonaren ahala mahastian mulkoa bezala jana... Zoazte eta ongi erran: gure bortizkeriako ohidurak, gure zaldi guti jale ‘ta lasterrak jazarraldietako hazietan eta gure kaskak egunaren haserreaz usnatuak... Ohidurak berritzeko herri ezinduetan, hainbertze familia moldatzeko xori xixtukari gabialde batzu bezala, ikusiko gituzue, gure egin moldetan, herri biltzale atherbe zabal batzuetara, goratik legar irakurle, eta gure legen azpian hoge jendalde hizkuntza guzietan mintzo...

“ Badakizue ere jadanik haien gostuaren ixtorioa: kapitain behartuak betiereko bidetan; herriko lehenak gure agurtzera multzoan jinak, urteko gizoneria guzia makiletan bere jainkoekin, eta printze eroriak Ipharreko ondartzetan, haien alaba menperatuek emaiten dauzkutela nasaiki bere hitzaren segurtamenak, eta Nagusiak diola: neure zorian badut sineste...

“ Ala erraiten dezteezue bakeko gauzak: herri ontsa izaiteaz gaizkituetan plaza eta emazte ezkongai usain bat, diru horiak, soinua garbi, palmen azpian eskuztatuak, eta jendaldeak phizkailu azkar batzuen azpian abiatuak – armadetako emaitzak, eragin tratu handiak ibaien bizarrera, auzo ahaldun baten jauresmena bere alaben itzalean eta mezuak aldizkatuak urre orsto batzuetan, adixkidantzazko eta zedarritzeko antolamenduak, jendaldetik jendalderako hitzarmenak latsetako naza batzuez, eta zergak herri gogo berotuetan hartuak! (urtegi, belartegi, zaldizkoen atherbe eraikitzeak – harresi lauzak urdin biziz eta bideak adarailu gorraxtaz – oihaleria hedatzeak nahitara, ezti arrosazko erreximetak eta sortu zaukun potroa armadako hornimenduetan – oihaleria hedatzeak nahitara eta, gure ametsetako mirailetan, ezpatak herdoiltzen dituen itsasoa, eta jaustea, arratsean, itsasaldeko herrialdetara, gure herri astidunetara eta gure alabetara

usainonduak, ematuko baikituzte hats batez, oihal horiez...)”

- Horrela batzuetan gure alharzeak zori berezi batez hertsatuak eta, egunaren urrats lehiatuetan, munduko alde huntan, zabalenean, botherea arrats oroz herritik joaiten baita, erramuzko alharguntasun oso bat!

Baina arratsera briolet eta buztin usain bat, gure emazten alaben eskuetan, jiten zizaikun gure jartzeko eta zoriko xedetara

eta haize eztiak ostatu hartzen zuten ur-golko hustuetako zolan.

VII

Ezkira beti lur hori horietan - gure atsegina - biziko...

Imperioa baino zabalagoko Udak aireko mahietan uzten du dilindan aro-mota andana bat. Lur bere eremuan zabalak baderama hautsen azpian gaindika bere itxindi hitsa. – Sofre, ezti kolore, gauza geldi batzuen kolore, lur oso belarduna phizten ari bertze neguko lastoetan – eta zuhatz bakar baten belogi muskerretik zeruak hartzen du bere heze ubela.

Mika harroki bat! Ez bihi garbi bat ere haizearen bizarretan. Eta argia urin bat bezala. – Betespaletako urraduratik mendi-hegien hariari batzen nizala, badazkit harri zakatzez titatua, ixilaren erlumeak argizko kofoinetan; eta ene bihotzak arrangura du larrepote mota batez...

Kamelu eme ile moztean eztiak, malba-koloreko orbainen azpian josiak, munhoak badoazila zero lurrezkoaren azpian – badoazila ixilik ibarreko goritasun hitsetan; eta belhaunika ditela azkenean, ametsetako khean, jendeak lurraren errhauts hiletan ezeztatzen diren lekuan.

Marra handi geldu batzu dira itxura gutiko ardantz batzuen urdintzetara joanki. Lurrak une bat baino gehiagotan ontzen ari ditu ekaitzaren brioletak; eta ondartzezko khe horiek ibai hiletako gunean goititzen, mende zati batzu bidaian bezala...

Hilendako mintzo aphasago batez, egunean mintzo aphasago batez. Hainbat eztitasunek gizonaren bihotzean, badaitekea bere neurrian huts egin dezakeela?... “Mintzi nizaizu, ene arima! – ene arima zaldi usain batez guzia ilundua!” Eta lurreko xori handi batzuek, hegalez Sartaldera, gure itsas-xorien itxura ona dute.

Zeru hoin hitsaren sartalden, itsuaren oihalez hetsi den leku saindu bat bezala, hedoi geldu batzu moldatzen ari, hetan itzulikatzen direla kanfre ‘ta adarraren xangreak... Hats batek hartu nahi dauzkun kheak! Lurra oro aiduru bere mamutxezko bizarretan, lurra mira batzuez erditzen da!...

Eta eguerditan, jujuba zuhatzak hilhobietako zimendua jauzarazten duenean, gizonak hesten ditu betespalak eta garondoa adinetan frexkatzen... Ametsaren zalduneriak errhauts hilen unean, gutarano hats batek ile-harrotzen dituen oi bide hutsalak! nun aurki, nun aurki ibaiak bere ezteietan zainduko dituzten gerlariak?

Lur gainean doazin ur handietako hotsean, lurreko gatz guzia ametsetan ikaratzen da. Eta bapatez, ha! bapatez zer nahi daukute mintzo horiek? Goiti ezazue mirail elementia bat ibaietako hezurtegien gainean, dei egin bezate geroko mendetan! Harriak goitizkizue ene ohoretan, harriak goiti ixilean, eta leku horien zaintzeko burdin-hori muskerrezko zalduneriak lauzada zabal batzuetan!...

(Xori handi baten itzala ene aurpegian iragaiten da.)

VIII

Mandoen saltzeko legeak. Lege ibilkariak. Eta guhaur. (Gizonen kolore.)

Zirimola handi horiek bidaian gure lagunak, ureko aroneurkinak lurrean joanki,

eta uhar ospekoak, gai mirazko batez eginak, errhauts eta mamutxaz josiak, gure jenden ondotik zoazila ondartzetan buru-zerga bezala.
(Ha gure bihotzen neurria izan zen ehon ez izaitez hainbat jana!)

*

Ez geldi aldia auher izan zelakotz: atxikimendurik gabeko aberen urratsean (adinekoen begiekilako gure zaldi garbiak), gauza ainitz hasiak izpirituko ilunbetan – gauza ainitz astira izpirituko mugetan – ixtorio handi seleukutarrak abailen xixtuan eta lurra argibidetan utzia...

Bertze gauza bat: itzal horiek – lurrari zeruaren ohointzak...

Zaldizkoak horrelako giza-familetan barna, han herrak batzuetan sagar-xori batzu bezala kantuz ari baitziren, azotea goitituko dugua zorionaren hitz irenduetara? – Gizona, hazta ezak hire phizua gariz neurturik. Ezta herri hau enea. Belar higitze hori ezpada munduak zer eman dauta?...

*

Zuhatz-Eiharraga dioten lekurano:

eta zimizta meharrak manatzen dauzta Sartaldeko herrialde horiek.

Baina haratago dira asti handienak, eta herri

handi belartsu orhoitik gabeko batean, urtea lokarririk ez urtabururik gabe, argi-hastez eta suez gazitua. (Goizera ahari beltz baten bihotza sakrifikatzen da.)

*

Munduko bideak, bat jarritzen zaizue. Lurreko seinale guzien gainean nagusitasuna.

Oi Bidaria arimaren gostuko haize horian!... eta kokulus indiarraren haziak, diok, baditik – leher bezate! - mozkortzeko indarrak.

*

Bortizkeriako lege handi batek manatzen zuen gure bizimoduetan.

IX

Hainbertze dembora bazelarik Sartaldean baginoazila, zer ginakien gauza

suntsikorrez?... Eta bapatez gure oinetan lehenbiziko kheak.

- Ema-gazteak! eta herri bateko izaitea oro usain-ondurik gertatzen da:

*

“... Iragartzen dezteat bero handi bateko aroak eta alhargunsa garrasialariak hilen ezeztatzeaz.

Ixilaren ohiduran eta arthan zahartzen ari direnak, gainaldetan jarririk, ondartzet beha daude

eta egunaren ospari ferietako itsas-artetan;

baina atsegina emazten sabelean moldatzen da, eta bada gure emazte gorputzetan halako mahats beltz orhantza bat, eta guhaurekilako bakerik ezta batere.

“... Iragartzen dezteat fagore handi bateko aroak eta gure ametsetan orstoen dohatsutasuna.

Ithurriak badazkitenak gurekin dira herritik joaite huntan; ithurriak badizkitenek erranen daukutea arrastirian

zein eskuen azpian gure sabeletako mahatsa zapatuz

zaizkun gorputzak ahogozo batez betetzen? (Eta emaztea belarrean gizonarekin etzan da; zutitzen da, gorputz-orrrazea antolatzen du, eta larrapotea airatzen da bere hegal urdinean.)

“... Iragartzen dezteat bero handi bateko aroak, eta berdin-berdina gauak, zakurren ehausietan, bere atsegina deitzen du emazten sabeletik.

Baina Arrotza etxe-oihal-pean bizi da, esnekinez, udarez ohoratua. Ur hotxa ekhartzen zako

hartan ahoaren, begitartearen eta setsuaren ikuzteko.

Gauaz ekhartzen zazko emazte handi antzuak (ha! egunaz gaukoagoak!). Eta behar bada nitarik ere hartuko du bere atsegina. (Emaztekin izaiteko arak zer dituen ezta.)

“... Iragartzen dezteat fagore handiko aro batzu eta ithurrietako dohatsutasunak gure ametsetan.

Idek ezatak ahoa argitara, ezti gune bat bezala harroken artean, eta ene baitan hutsik aurkitzen bada, haizatua izan nadila! bertzela,

joan nadila oihaletxera, joan buluzirik, pegarraren ondora, oihaletxe-pera,

eta hik hilhobi izkinako laguna, ikusiko nauk luzaz ixilik ene zainean zuhatz-alabaren azpian... Galdezko ohe bat oihaletxe azpian, izar muskerra pegarrean, eta banagola hire botherearen azpian! ur hotx pegarra ezpada seihirik batere oihaletxe-pean! (Argia baino lehen jalgiko niz izar muskerra iratzartu gabe, ez larrapotea atarian ez lur guziko zakurren ehausia.)

Iragartzen dezteat fagore handi bateko aroak eta arratseko dohatsutasuna gure betespal suntsikorretan...

baina oraikoan bederen eguna da!”

*

- eta egunaren hegiko dirdiran zutik, herioa baino xahuagoko herri baten atarian,
neskek gernu bazegiten bere zaietako oihal margolatua baztertuz.

X

Hautu egik bazterra biltzen zakon xapel handi batez. Begia mende batez gibelatzen da arimako herrialdetara. Kleda bizizko athetik ikusten dira ibarreko gauzak: gauza bizidunak, oi gauza ezin hobeak!

potro sakrifikatze batzu haurren hilhobi gainean, alhargunsa ikuzaldi batzu arrosotan eta xori musker bilzarre batzu korraletan aguren ohoreko;

lurrean gauza ainitz entzuteko eta ikusteko, gauza bizidunak gutartean!

aire zabaleko bestaldi batzu zuhatz handien urtaburuetako eta zeremonia publikoak phutzu baten ohoretan; harri beltz, beteginki biribil batzuen eskaintzak, ithurri aurkitzeak leku hil batzuetan, oihal konsekratzeak, haga batzuen puntan, lephoetara hurbiltzean, eta oihukatze bortitz batzu, harresien azpian, iguzkitara adineko batzuen ebakitzeko, ezteietako oihaleria batzuen agerian emaitako!

oraino bertze gauza ainitz gure bolsuen heinean: abere lotzeak hiri bazterretan, ile mozlen atzinean jenden harat-hunatak, phutzu-zilatzalen eta zaldi zikiratzalen; sal-erosteko jokoak uzten ufan eta belardien aireztatzea, xarden puntan, hegaztegien gainean; lur erre gorraxtazko heskailuen eraikitzeak, haragi idortegienak zabalzetan, galerienak aphezendako, kapitaindegienak; abel-arthatzalearen korrale neurrigabeak; mandobiden antolatzeako herlanak, bide itzulikari batzu erreka hertsietan; nunbait eritegi batzuen jartzeak; bidekari multzoen ethortzeko izkirioak eta zaintzen zituztenen igortzeak diru aldatzalen auzoaldean; aipamenak sortzen ari hegaz-pean, erregosi untzien aitzinean; diru-hartzetako paperren oihukatzeak; abere larru-zurien, lupeko har zurien suntsitzeak, lahar eta elhorri suak herioaz zikindu lekuetan, garagar eta allargizko ogi eder baten egitea; edo galxuriz; eta gizonen khea leku orotan...

ha! mota guzietako gizonak bere bidetan eta bizi-moldetan: mamutxa, ur-udare jale; lotura, aberastasun ekharle! laboraria eta adalinga, orratzlaria eta gazkina; zubizaina, arotza; azukre, kanela, burdinzurizko edangia eta adarrezko argi-untzi saltzale; larruzko jantzi bat mozten duena, zurean abarkak eta oliba moldeko botoinak; lurrari bere moldeak emaiten dauzkona; eta gizon ofizio gabea: gizon belaztuna, gizon xixtuduna, gizon erleduna; atsegina bere mintzoaren doinutik hartzen duena, egitekoa harri musker bati beha egoitetik; azalezko su bat hegaztegian erre-arazten duena bere atsegineko; lurrean orsto usainduneko ohe bat egiten duena, hartan etzan eta atsedena hartzen; zeramika musker batzuen marrazkiak gogoan dagona ur bizizko aska batzuekiko; eta bidaiak eginik berriz abiatzekotan dena; euri handietako eskualde batean bizi izan dena; tantoka, mailka, godaletetan jokatu dena; edo bere karkulako taulak lurrean hedatu dituen; khuiatto baten erabiltzeaz xedeak badituen; hatzetan arrano hil bat herrestan deramana abar zama bat bezala (eta luma emana da, ez saldua, gezien lumaztatzeko), zurezko untzi batean hazi-irina biltzen duena (atsegina, dio, margo hori hortan dut); kauserak, palmetako harrak, martxuka-gorriak jaten dituen; suge-belarraren gostua maite duena; bipher lodi batez ametsetan dena; ala ere lupeko xori-nigar bat hortzez xehatzen duena, maskor bat beharrira deramana, eta jeinuzko usainaren aiduru dagona harriaren arraildura berrietan; emazte gorputza gogoan duena, gizon lizuna; bere arima badakusana igitai baten leinuruan; jakitatetan, izendegietan ixuria dena; bilzarretan entzuna den gizona, ithurriak izendatzen dituen, zuhatzen azpian alki emaitza bat badagiena, ile thindatuzko bat zuhurrendako; eta egarri deneko burdin-horizko gopor handi-handi batzuekiko gurutzetan lot-arazten; hobeki oraino, ezer ari eztena, holako gizona eta bere aretan holakoa, eta bertze hainbertze oraino! galepher hartzaleak alhorretako ozketan, berrhoetan arraultze muskerrez titatuak biltzen dituztenak, gauza batzuen biltzeko zalditik jausten direnak, agata batzuen, hiribazterretako sartzetan pikatzen den harri urdin xurail baten (untxi, tabakontzi eta heba induen eskuetan itzulikatze borobil moldean); airera xixtuz khuxatto batzuen margolatzen ari direnak, gizon bolizko makiladuna, gizon errotanezko kaderaduna, neska esku batzuekiko aphaindua den ermitanoa eta bere atharian lantza hari zimino baten estekatzeko lurrean sartua duen gerlari utzia... ha! molde orotako gizonak bete bide 'ta moduetan, eta bapatez! arratseko jantzietan agertua eta inguruan lehentasuneko egiteko guziak hausten dituela, Ipuinlaria ahuntadar ondoaren oinean jartzen ari...

Oi ethorki-emailea plazan! Zenbat familia eta jendakia ixtorio? – eta bizi dena hilak har dezala, legelariaren tauletan errana den bezala, gauza oro ezpaldin badut bere itzalean ikusia eta duen adinaren mereximenduan: liburu eta urtekaritegiak, izar ikerlearen botigak eta ehorztokietako leku baten ederra, templo zahar-zahar batzuekiko palmen azpian, mandeme eta hirur oilo xurien bizitegia – eta ene begiko inguruaren haraindian, egintza segetuzko

ainitz bidenabar: ikasi eztitutan berri batzuentatik oihal-etxe aldeak bilduak, mendixketan jendalden ausartziak eta ibaien iragaiteak zahagi batzuen gainean; zaldizkoak batasuneko eskutitz batzuen eremaiten, ardantzetan zelataldia, ohoinen egintzak erreka hertsietako zolan eta alhorretan gaindi emazte baten ebasteke itzul-inguruak, tratuak eta zimarkuak, ihizien estaldurak oihanean haurren begi aitzinean, eta profeta batzuen eriondoak iditegien zokoan, bi gizonen solasaldi ixilak zuhatz baten azpian...

baina lurrean gizonen egintzen gainetik, seinale ainitz bidaian, bihi ainitz bidaian, eta eguraldiko airisaren azpian, lurraren hats handi batean, uzten luma guzia!...

arratserano, orduan izar emea, gauza garbi eta zero gorenetan saristatua...

Ametsaren lur iraulgarria! Eraikuntzaz nor da mintzo? – Ikusi dut lurra eremu zabal batzuetan uzitua eta ene gogamena ezta itsasturitik baztertua.

ERESIA

Ene zaldia urxaphalez betea den zuhartzaren azpian gelditurik, xiztu hain garbi batez xixtu badagit, nun ezpaita ibai horiek orok bere ur-hegietan atxik dezaketen agintzarik (Orsto biziak goizean ospearean iduriko dira)...

*

Ezta ere gizon bat trixte eztelakotz, baina argia baino lehen jeikiz eta zuhartz zahar batekin zuhurki solasean, bidarraz azken izarrari, ikusten ditu zeru baruraren zolan atseginera itzultzen diren gauza handi batzu...

*

Ene zaldia urrungaz ari den zuhartzaren azpian gelditurik, xixtu garbiago batez xixtu badagit... Eta bakea, hilen baldin badira, egun ikusi ez tuteneri. Baina ene anaia poetaz berriak ukan dira. Gauza ezti-ezti bat egin du oraino. Eta batzuek haren ezagutza ukan zuten...

HAIZETE

Atlanta eta Allan P.-ri

I

1

Haize guziz handi batzu baziren mundu huntako alde orotan,
Haize guziz handi batzu munduan gaindi bozkariotan, ezpaitzuten
ez ohatza ez etzangiarik,

Ezpaitzuten ez gelditze ez neurririk, uzten ginituztela, lastozko
gizon,

Lastozko urtean bere lasterrean... Bai zinez ! haize guziz handi
batzu bizidunen aurpegi orotan !

Usnatzen zuten gorrindola, zurdatza, usnatzen bolia eta eltzekia,
usnatzen gauzetako mundu osoa,

Eta bere egitekora lasterretan joanki gure indarlarien, olerkarien
gainean,

Haize guziz handi batzu baziren mundu huntako oin-hatz orotan eske,

Gauza galkor ororen, gauza hargarri ororen gainean, gauzetako mundu osoaren erdian...

Eta lukurreria, idortasuna gizon inguratuen bihotzean haizeztatuz, Huna nun bazematen lasto eta belar usain onen gustu bat, gure hirietako plaza guzietan,

Hala nola herriko lauza handien goititzean. Eta bihoztarra jauzten zizaikun

Ofizioetako aho hiletara. Eta jainkoak izpirituko lan handietarik gibelera bazegien.

Ezen mende oso bat harrabotsez ari zen bere lastoan, hitz-buru bitxi batzuen erdian : lekaz, zalkez ezindua, gauza daldarari batzuetan ezindua,

Hala nola zuhatz handi bat bertze neguko philden eta philzarren azpian, urte hilaren jantzia soinean ;

Hala nola zuhatz handi bat daldaran bere zur eiharren kalaka eta lur erreko mulkoetan –

Zuhatz handi-handi eskelari bere ondorea zimurtu duena, aurpegi maitasunaz eta bortizkeriaz errea hartan gutziak kantatuko baitu oraino.

« Oi hi, gutizia, kantatzera hoana... » Eta ez ote dut orsto hau guzia bera jadanik azantzetan,

Hala nola mirazko zuhatz hori neguko bere zintzilerian : bere saindu-itxura, jainko-aizunen azpian ezteus,

Larrapote ondarkin eta izigaien leriartzen ; eskainiz, zeruko haizeari lotuz hegal eta erlume haurrieriak, elhe goieneko hitzaldi et' aldagai –

Ha ! hizkuntzaren zuhatz guziz handia, erranez eta zuhur-hitzez jendeztatua eta itsu-jaiio baten murmurikaz murmurikan jakitatearen laur-izkinetakoan...

2

« Oi zuek ekaitzak hoxten zituztenak... Hoxtura eta hoxturaren bermea... » Errailea harresietara igaiten da. Eta Haizea harekin. Hala nola Azti bat bere ukarrietako burdinazkoetan :

Odol berriaren ihiztatzeko jantzia – zaia dorpe urdin-iluna, zeta oihal gorrindolezko xingolak, eta bizkarreko luzara ixurkatua erhien punttan haztaturik.

Hilen irriza jana du ; haien hil-mihise gotoinezkoan moztua du gozameneko zuzenbidea. Baina elhea biziendako du ; eskuak geroko asketako,

Eta haren elhea ur berria baino hotxago zaiku. Hoxtura eta hoxturako agintza... « Oi zuek ekaitzak hoxten zituztenak... »

(Eta nork bada elezake hauts, aztalaz hauts kantuaren gatinadura ?)
Lehiatu bahar, lehiatu ! Bizidunaren hitzaz !

Errailea harresietara igaiten da goizeko hoxturan, hondakin eta legarkietako hoxturan. Aurpergia arno bestetako bezala margolaturik... »

Behiala, jainkoaren gogoia agertzen zen arrano erdi-ideki batzuen gibeletan, eta jainkotasunak alde orotarik hartzen zuen bizidunen goizaldea.

Aztigoia sabeletik eta hatsetik eta hatsaren pilpiratik ! Aztigoia zeruko uretik eta ibaietako judiziotik...

Eta horrelako zeremoniak fagorekoak izan ziren. Erabiliko ditut. Ene olerkian jainko baten fagorea ! Eta huts egitera jin ezta kidiola !

« Amets fagoragarriaz fagoratu » izan zen zuhurraren izanararen goraiatzeko hautatu zen erranaldia. Eta olerkariak oraino laguntza aurkitzen du bere olerkian,

Olerkian erlisionekeo ohitza hori ezin hobea dela aithortuz, eta gizonak arrastirian entzuten duen oro ;

Edo ere gizon bat hetan zaldi beltz bat sakrifikatzen den zeremonia handi nagusietara hurbiltzen ari denean : - « Nagusi bezala mintza, dio Entzuleak. »

3

Indar guziz handi batzu baziren hazten ari mundu huntako bidexka orotan, eta sortzea gure kantuetan baino gorago hartzen zutenak, laido eta aharra lekuetan ;

Eskubidea hartzen baitzuten munduan gairi – oi gauzetako mundu osoa – eta ethorkizuneko hegietan bizi baitziren eltzeginaren buztin aldapetan bezala...

Itsaso-zabaleko ixtorio goren kantuan, bazabilaten bere antxeretako, xedeboetako gostua ; bazituzten, ondartz orotan, gogoko hondamen handi batzu,

Eta arratsaren urrats lasterretan, izpirituko nahasmendu gaixtoenen erdian, handitasunezko ara berri bat jartzen zuten hartan goititzen baitziren gure egintza gerokoak ;

Ala eztabadatuz, urrungo irletan, jainkokiaren zoriaz, eraikitzen zuten gainetan hartara sar ezkitazkeen Ezeniarren moldeko aharra bat...

Haien bidez joritzen ziren hutsegina eta mirazkoa, arrazoin idurikoaren larrapote muskerra ; gogoko sumindurak gatz-hobietako inguruetan eta erotismoaren hoxtura oihanetara sartzean ;

Haine bidez ezin-egona Itsaso hilen bazter alegiazkoetan, lamar-larru koloreko hegietan, eta alegiak, mendeko bide-galtze handiak hetara biltzen diren mirazko larre orotan...

Gogamen berriez khotsatzen zituzten orronen ile beltza, hartan bahimenezko manu ederrak bazabiltzan zeru aphala,

Eta ondartz orotara hedatuz gutziaren gatz-belarra, hazi eta hazteko izerdi hitzemaiten zuten biper-ondo eta julufraiaaren goxakia bezala,

Hitzemaiten zituzten gizon bizien zurrumurrua eta kantua, ez aipatu dugun zurru-murru idor hura.

Burura ezak, Errailea !... Xixtu bazegiten Gortetako athetan. Harrizko jainkoak aurpegiz lurrera etzaten zituzten, bataia-harria asunera, eta basa-oihan-pera Bayon-a.

Ithurria idekitzen zuten laharren eta erret-lauzaden azpian – Khondu Gortetako korrailetan eta Ahur-Jokoetan, marrazkiz, liburu zaharrenez eta emazten eskutitzez ihartuak ziren karrika hertsietan.

Hartzen zuten harriaren haserre oro eta garraren aharra oro ; jendearekin sartzan ziren amets handi onginahien barnera, eta hiri bazterretako Zerkueterano, oihal-etxe handienaren jauz-arazteko eta haren neska, Menada ile-harrotzearen, oihalen eta estekagailuen hegaldatze batean...

Bazoazin ethorkirik gabeko gizonak eta lehentasunik gabeko haurrak doazin lekura, neska arinekin eta Elizako neskek, kaska, ezpata-luze, eta erlika-untzi zahar batzuen koloreko itsaso Katholikoetan,

Eta Artzainaren, Poetaren urratseri jarraikiz, beretzen zituzten bidenabar Mormon-aren antxeta malba-kolorea, desertuko baserlea eta mamutxen iragaiteak itsaotan gaindi, gauza erratuen khe batzu iduri eskaintzen zituztela begien atherbea eta ohe zerua ur-hegian emazten ametserier.

*

Horrela gure adineko bihurtunean handituz eta xixtuz, atheka gorenatarik jausten ziren ehork hartan bere leinua ezagutu eztuen xixtu berri horrekin,

Eta jendaldearen ohean barreatzen zituztela, ha! barreatzen – barrea bezate! ginion - ha! barreatzen zituztela

Itsas-seinale et' aingura-geldi, milletako zedarri eta orhoitezko harri-zut ; gazteluxkak mugetan, urdategi batzu bezain apha, eta aduana aphaagoak lurraren maldan ; palmen azpian bateria zahartuak, oiloeriaz zikindu korail xurizko irletan ; etxolak lurburuetan eta bidartetan gurutzeak ;

hirur zangoko burdin-hagak eta gabizainen lekuak, geriza-saskiak, belartegi eta sotoak, oihanean othoiztegia eta mendian atherbea ; iragarkietako hesolak et ondarkinetan Galbarioak ; ludizkilariaren bida-mahiak eta atzerri ikuslearen taula-untzia ; bidekariaren eta lur-neurlearen harri metak ; mandazainaren ala lama-jarrailearenak behar bada ? eta burdinazko arrhantza korraletara hurbiltzean, eta abere markatzalen aroztegia airera, alderdikariaren harri zutitua eta herjaunaren harri meta, eta zu, Landegi jabearen urrezko burdin-sare gora, eta familiako industria handietako atherdi arranoz landua...

Ha ! barreatzen zituztela – barrea bezate ! ginion – jubilau harri oro eta hutsezko zen harrizut oro,

Berremaiten zaukuten arrats batez lurraren aurpegi motza, hartan ehun bat neskaso eta basa-idiien sortarazteko hizopoaren eta errostarren erdian.

Horrela handituz eta xixtuz, bazematen nehork hartan ezagutzarik eztuen kantu garbi-garbi hura.

Eta lan hiletarik biziak berexiak ukan zituztenean, eta hoberenetik ezin hobea,

Huna nun goxatzen ginituzten agintzazko amets batez, eta atzartzen zituzten guretako, bere ohatze zetazkoetan,

Hala nola beretersak lotan eta hegal alabak bere soin aldatzean, ah ! ninfak ninfatzean erlatzeko ohitzen erdian – hegal oihaleriak bere kuxkuan eta hegal azauak bere gezi-untzian –,

Ethorkizuneko lapitz handietan hetsirik zauden idazki berriak...

Oi hoxtura goizaldean hegal neska bat egin zen gauan : lanjerreko hegi gorenean, orstoz et' abailezko

Bekoki gorenean !... « Lillura nezak, agintza, jaioa izaiteko ametsaren ahazterano... »

Eta Erregeak erasiatu dituen bezala, entzunen dut ametsaren larderia nitan igaiten.

Xoratu, xoratu, hion, xoramenari uko eginik... Xoratu, xoratuagoa, egonez

Eskatiman.

Guzia berriz hasteko. Guzia berriz erraiteko. Eta behakoaren sega ukaite guzira eremana !

Gizon bat ethorri zen Liburuzainen harrizko galerietara irriz. – Liburuaren Erreteliza !... Gizon bat harri beltzaranezko eskupekoetan, burdin-hori eta harzurizko lehentasunen azpian. Izen gutiko gizona. Nor zen, nor ez ?

Eta harresiak agataz dira hetan girisailuek dirdiratzten dutela, gizona buru has eta eskuak leun harbizi horizko harrobietan – han baitira liburuak emategian, han liburuak bere xokoetan, lehenago bezala, oihal xerrenda-pean, lastozko ihiziak bere pegarretan, Templo handietako gambara hetsietan – liburu trixteak, ezin zenbatuak, mail gora kledadunka badaduzkatela egiatasuna eta gauza mailkatuak aroen goititzean.

Eta harresiak agataz dira hetan girisailuak agerian baitaude. Harresi gora ixilaz eta jakitateaz leunduak. Ixila eta ofizio ixilak. Aphez eta apheztasun. Zerapeum !

Primadera muskerreko zein bestetan beharko dugu artxiboetako errautsetan zikindu erhi hau ikuzi – zahartasuneko hauts xuri hortan, Erregina hilen, lehengo aphezen larru thindu hortan guzian – hala nola eltzeki xurizko hiri sainduetako minakietan, hilak ilargi eta urrikaltze soberaz ?

Ha ! gisuki hori guzia airezta dezatatela ! Ha ! gezurki hori guzia airezta ! Idortasuna et' aldare batzuen amarrua... Liburu trixteak, ezin zenbatuak, bere kleda hitsezko sahetsean...

Eta zer da oraino, ene hezurrezko erhian, higaduraz eta zuhurtasunezko hauts xuri hau guzia, eta jakitearen errhauts horien haztatze guzi hau ? hala nola urtaro azkenetan hazi irin hauts eta errhauts, aukaren hazi eta hazi xehe, aza-pinpirin hegalean, esne-onjo azalen phorroskatze bat... oro gauza horailak ezin ttipiagoaren mugan, lezen zolako ondarkin, lohi, liga metatzeak ahitzez ezindurik – gogoaren hauts eta ezipal.

Ha ! xuriketa eta berinapeko beroztatzen usain on ephel hori guzia..., hil-hobi egiteko lur xurien, bolatzeko lur xuriaren eta Victoria-ren aroko Landaretegi zahar horietako ilhartze lurraren hori guzia..., zolda-belar eta itsas-merla bafada geza hori guzia, koprah mami xuriarena, eta orbel idortegiena belardi handietako bere zango feldro hautsarandunen azpian,

Ha ! atherbe 'ta kazbah gustu hori guzia, eta zahartasuneko hauts xuria harriaren zizelduretan – aldaretako idorra eta amarrua, korail ondartzetako usteldura, eta, urrunean, gisukizko zurkaitz handien khotsua, ekliptikoaren salakerietan...

Joan behar ! joan behar ! Bizi denaren hitza !

...Eaa, lezeko jainkoa, eztuk hire aharrausia zabalago.

Jendaldi batzu joan ziren horretako suetara, arno handien garrarekin,

Eta ipharreko jeietarik jautsi goizalde, aphaintzalesaren eskuetan,
Eztute oraino bere oihaleria joko aldatu.

Urtaro hilak etzanen ditugu gaur bere arratseko zaietan, urre zaharrezko denteletan,

Eta olata kantu bat bezala armaden hatzean, Andere Miragarrien mahietan, Gizon Aphainegienetan,

Gure bertsua urtetako garraioan arin da !

Etzaiztela ene beha egon Malibran kantarien goraintzien bestetako.

Gizonen jei-egunez nor da orhoit oraino ? – Erromako Paliliak, Panoniak,

Eguberri eta Bazko eta Ganderailu eta « Thanksgiving Day »...

Zuek, geroko ur-bazterrak, gure urratsek nun joren duten baitakizue,

Baduzue jadanik harri hasaren eta ithurri berrietako gorbelen usain ona.

Liburuak ibaiari, gauargiak karraketan, badut egiteko hoberik gure hegaztegieta ekaitzaren igaiteari beha.

Baina ere gerta badadi ithurriak ezagutza handiago batez huts egin dezan,

Emazte buluzi bat etzan-araz bedi bakarrik teilatu-pean –

Bere tauletan, milaka, liburu trixteak egon ziren leku berean sehi eta neska alokatu batzu bezala...

Hor, emazte buluzi batendako izan bedi burdinazko ohe bat, leiho guziak gauari idekirik.

Emazte guziz ederra eta garbia, Hiriko emazte ororen artean onhartua

Duen ixilaren eta garaziaren eta haragi narrik gabekoaren gatik, besape inguruan ambarez eta urrez hartua,

Emazte usain-ondua eta Gauan bakarrik, lehen bezala, burdin-horizko teilaren azpian,

Bekoki burdinaz kuxlulatuan ihizi beltz dorpearekin, jainkoaz ezagutua izaiteko,

Emazte astikoa Zeruaren usnako eta bademala bakar harendako bere izaitaren barne bizia...

Biz hor fagoreko ametsaz fagoratua, haren orhoitik eztugun jainkoaz usnatua,

Eta mutu bilakaturik, goizera, mintza zaikula kheinuz eta soaren adimenaz.

Eta goizeko seinaletan, zeruaren orientean, biz ere erran-nahi bat eta aieru bat...

Horrela Xoratzalea, bide 'ta karriketari hara,
Badoalarik bere aroko gizonen baitara jende xoilaren jantzietan,
Eta kargu publiko oro utzia duelarik,
Gizon guziz librea eta astiduna, irriño batekin eta garazia onean,
Zeruak harendako badaduka bere urruna eta gauzen moldea.
Eta hau bezalako goiz batez du, behar bada,
Zerua Orientean uholde handien idurikoa denean,
Haizearen oheko egintza berri horietaz aholku galdegiten.

Eta indarrezko eta bortizkeriazko aholkua da oraino.

6

« Xoratu, xoratuagoa, hion, xoramenari ukho egitez... »

Gizon bat jeikitzen da oraino haizera. Hitza hezur ezpal bat bezain motz. Oina jadanik bere lasterreko izkinan...

“Ai! ba, gauza oro idekirik! Biziek elgarri erran bezate!

Behereko auzoaldetan oroz gainetik – hori gotor da.

Eta zuek, zer eginen duzue, gizon berriak, ordu bahituaren bidarrean trenza phizu laxatuez?

Gambaretan ametsak amestuz ari zirenak barda etzan dira Mendearen bertze alderdian, argizagi etsaier bekoz.

Bertze batzuek arno berria edan dute miniumez margoztatu ithurrietan. Eta horietarik ginen izan. Eta izan ginen trixtezia hura bihoala haizearen bestetan!

Hartan Ameslariaren aidurua lilluratzen den ametsak berea egin du.

Gure salbamendua lehian da eta haustean. Ezin egona leku orotan. Eta Ameslariaren soingainetik ametsaren eta geldi egonaren salatzea.

Bila ditzagutela hermugetan bothere handiko gizonak, egintza gabeaz Xoratzalen ofiziora bortxatuak.

Gizon ezin asmagarriak. Gizon jainkoaz setiatuak. Gizon arno berriaz haziak eta zimiztaz zilatu iduriak.

Zer-egin hobea badugu haien indarraz eta begi gordeaz.

Gure salbamendua hetan da zuhurtzian eta artekotasun gabean.

... Eta izan ginen trixtezia bihoala ere gizonen arnoan!
Aurpegi berri goititzen dugu hartan, aurpegi berri ikuzten dugu.
Kontratu egile 'ta lekukoek ithurrien gainean hitzemaiten dute.
Eta gure ondoan gerta badadi gizon batek bere bizidunaren
begitarteari huts badagiela, atxik zakidiola bortxaz aurpegia haizera!
Haizean doazin jainkoek eztute azotea debaldetan goititzen.
Erraiten zukuten – erranen dautzuetea? – ehun bat ezpata berri
mehatzen dela orduaren harian.
Egintza ere zorrotzuko daukute, hastapenean, suharria edo
berinharria bezala gezien puntan.

“Jainkoki ametsen sortzearen aldekoak, eztauzuet zuer hel egiten,
baina egintzaren Sustatzaile suhar eta labor jantzier.
Gure egitekoak hobeki aitzinatzen ditugu bortiztasunaz eta
izpirituko gogorraz.
Hilen izanara ezta gure axola, ez hutsean erori denarena.
Izarigabetasuna da gure erregela, odoleko samindura gure gozoa.
Eta haizearen gogoaz hartu liburu handi hek, nun dira bada?
Hetan alha ginitazke.
Gure legea alderdikaritasuna da, gure aztura berexgoa. Eta eztugu
lekuan, oi jainkoak! etsaigoarik baizik.”

Gure galdeak ezin gehiagokoak izan ziren, gizatasunaren
mugaranokoak.
Xixtu egizue, hutsera eroriak! Haizeak azkar dira! Eta hori da bada
gure lehentasuna.
Jeikitzen gira gizonaren oiuhu handi horrekin haizera
Eta aitzinatzen, gizon bizidun, gure ontasunaren galdegitera
ondoriotasunaren aitzinatzez.
Orotarik zuti dadila gurekin! Eman dakigula, oi bizidunak, hartze
dugunaren bete-betea!

*

Ha! bai, gauza oro idekirik, ha! bai, gauza oro urraturik! Eta Urtea
joanki, hegala gora!...
Lasto eta luma hegaldatze bat da! haun eta abazuza hoxtura bat
seinale goitizetan! eta Hiri behean itsaso aldera orsto xuri samurtze
batean: hegaldatze bereko liburuxka et' antxetak.
Ezin egona oraino alde orotan. Eta gizon arrotzak, alde orotarik,
burua hortara goititzen du: gizon goldenabardunak lur beltzean, zaldunak
hergaraiian zeru aphaleko dintilekin, eta itsas-gizonak ur-athekak ikusiz, bere
oihal goreneko zartatzean.

Filisofo “babouvixta” athe aitzinera jalgitzen da buru has. Badakusa Hiria, hirur aldiz, zimiztaren seinaleaz joa, eta hirur aldiz Hiria, aire gaixtoaren azpian, ezpataren argian bezala, bere ikaztegieta argitan eta portuko eraikuntza handietan – zikinkeriazko eta burdineriazko golgotha bat, zeruko zuhatz pozoinatuaren azpian, adarreriazko erret-makila eskuan Saga-ko iphar-orein zahar bat iduri:

“Oi zuek ekaitzak hoxten zituztenak..., hoxtura eta hoxturaren bermea...

Berriz harturik jainkoer zuen begitarteak, aroztegieta suer zuen argia,

Huna nun egoiten zirezten deituak zinezten Mendearen alderdi huntan,

Aphal aroa, zimizta-pean, hor hiltzen ari den hori!

Lehia, lehia! bizien hitza! eta zuen aitzinekoak anda batzuetan zuekin izanen dira behar bada.

Eztuzuea bada ikusten, bapatez, guzia lurrera doala – masteria guzia eta oro, soka eta tresneria belazurrunarekin, oihaleria guzia gure begitartera zuzen – sineste hil bateko alderdi oso bat bezala, zaia hutsal eta tela falsuzko hegal handi bat bezala –

Eta zubi gainean aizkoraren hartzeko ordu dela azkenean?...”

“Hesi, zedarri ekhentzea! Haziak eta belar berri bizarrak! Eta lurraren inguru neurrigabea, Berritzalearen bihotzean baketzea...

Dotrineta hedatze handiek ezkituzte ustegabetuko, jendaldeak badaduzkatelarik bere izkinan ezkata lur gainean bezala.

Lehia! Lehia! izkina handitzen ari!... Eta handitzen diren gauzen oihutaldietan, ez ote da guretako doinu aldatzet berri bat?

Goaitatuko hugu, urrezko urri-lorea! hala nola tubaren kantua burdin-horien azkartzean,

Eta gizon antzedunak hobesten baldin baditu arrosategia eta klabezin joitea, zakurrek janen dute.”

*

Tirrietako organoen alasean, kantuaren Nagusi!

Oi hi, Poeta, oi iheslari kondenatua eta laur aldiz ukatzalea, bekoaz oraino haizera, kanta ezak zirimolen eliza-kantuetako liburuan:

...“Zuek, geroko ur-bazterrak, baitakizue gure egintzak nun atzartuko diren, eta gure jainkoak zein alki berrietan jeikiko, atxikaguzue erorte orotik garbi den ohe bat...”

Haizeak azkar dira! Haizeak azkar! Entzun ezak ere ekaitza arratseko harbizien iraultzen.

Eta hik, gutizia, kantatzera hoana, irriaren luzatzean eta atseginaren ausikian, izarr-ezak oraino kantuaren jalgitzeko begiratu den unea.

Arimak haragiari badagizkion galdeak ezin azkarragoak dira. Atxik gitzatela hats-bahi! Eta higitze azkar batek ereman gitzala gure mugetara, eta mugez haraindira!

Hesi, zedarrri ekhente... Baketzea Berritzalearen bihotzean... Eta lurraren inguru neurrigabeen, gizakien oihu ber bat haizera, tuba kantu bat iduri... Eta ezin egona oraino alde orotan... Oi gauzen mundua osoa...”

*

Itsasoak marmaran arratsaren luzatzean, hala nola gastuko abere esnez gainditu batzuen oinaze bat.

Ondartzak murmurikan, hazitzen ari den belarrean, eta gizonen higitze handi hori guzia egintzara.

Eta bizidunen erresuma neurrigabeen, ondartzetako belarraren erdian, gure adina baino zabalagoko bertze higitze hori!

...Aroak bere habia burdinazko kaska batean badagien bazter eta ixil une hortarano – eta hirur orsto ibilkariak Erregina hil baten hexur inguruan badagite bere azken itzulia.

... Ur hil eta ahazte gune hortarano, atherbe ‘ta ambarazko lekuan, hor Itsaso-handi garbi-garbiak bere urrezko belar guziaz dirdiratzten baitu gantzu sailduen erdian – eta Poetak begia badatxika gorbel xingoladun argiago batzuetan.

7

...Eaa, lezeko jainkoa, dudaren tentamenduak lasterrago litzateke
Hetan Haizea erortzera doala... Baina arimako erredura da azkarrenik,

Eta dudaren eskatzen kontra, haragian arimaren bortxuek
Hats bahituak aitxikitzen gituzte, eta Haizearen hegala biz gurekin!

Ezen zorigaitzaren uztarri burgoien gurutzatzean, kantu hunen betearen atxikitze bere gorenean,

Ezta, kantuaren Nagusia, arimako harrabots hori guzia sobera –

Hala nola soinuen joko handian, burdin-horizko goporraren eta dizka handi daldararien artean,

Maitasunaren basa-erlume handien atxikitzea bere goren-gorenean.

“Haztatu haut, poeta, eta phizu gutiko aurkitu.
Laudatu haut, handitasuna, eta huts egiten eztian oinarririk eztuk.
Aroztegi hiletako usainak goizean urrintzen ditik jeinuaen harpeak.
Jainko irakurgarriek ihes bazegiten gure egunetako hautsetik. Eta
maitasuna hipaka gure gauazko etzantzegietan.
Hire esku zaluak, Kaezar, ohantzean ezтик hegal ezteus bat baizik
bortxatzen.

Korona ezak heure burua, gazteria, ortso zorrotzago batez!
Haizeak athean joiten dik kampamenduko Nagusi batek bezala,
Burdin-eskularru soinuarekilako hire athean.
Eta hi, eztitasuna, hiltzera hoana, estal ezak zaiaz hire aurpegia
Eta gure eskuetako lur usainaz...”

Haz bedi Haizea gure ondartzetan eta ametsetako lur kizkailduan!
Gizonen osteak iragan dira gizonen bidean,
Gizonak doazin lekura, bere hilhobietara. Eta itsaso zabaleko
Ipuin gorenen harrabotsean, Sartalderako untzi-hatz oraino
dirdiratu hortan, orsto beltzaren et’ arratseko ezpaten erdian...
Eta nik erran dut: Etzakala ohea idek trixteziari. Jainkoak biltzen
ari dira ithurrietan,
Eta egintza handien zurrumurrua da oraino itsaso-zabaleko ipuin
gorenetan.

Ibai ezin agortuetan edaten zen bezala, gizonak eta abereak
nahasirik gizon multzoen aitzin-lerroan,
Aroztegi batzuetako suan airera atxikitzen zen bezala burdinkiarin
oihu luzea bere lizunkeriazko ohean,
Haizearen ohera eremanen dut ene indarraren heren-suge
bizkorra, haizearen ohean ibiliko niz ahal nola indarrezko eta hazteko
bizitegian.
Haizean doazin jainkoek oraino sustatuko dituzte gure hatzetan
ohigabeko ixtripuak.

Eta poeta berriz ere gurekin da. Eta gauzen igaite ethengabe bat da
Sartaldetik zeruaren aholkuetan.

Ospatze berri batzuetako lerro bat moldatzen ari da orduaren hegi
goren-gorenean.

Eta alde hartara Sartaldean zohitzen jaio-aitzineko itzal baten
altxagarri garbiak – hoxtura eta hoxturaren berme,

Eta gizon batek entzuten duen guzia arratsaren hurbiltzean, eta
zaldi beltz baten odolak hetan darion zeremonia handi nagusietan...

Joan behar! Joan behar! Bizidunaren hitza?

II

1

...Lur berri batzu, haraindian, lur-ustel eta orstail usain gora batean,

Lur berri batzu, haraindian, munduko itzal zabalenen luzatzean,

Lur osoa zuhatzer, haraindian, mahasti beltz batzu zolan, itzal eta hoxturazko Biblia bat bezala mundu huntako idazki ederrenen hedaduran.

Eta mirazko gauza batzuen sortzea da, hoxtura eta hoxturaren sortzea gizon orhoitgarriaren bekokian.

Eta lehenagoko gauza batzuen gustu bat, hala nola aitzineko Izenburu handietan ithurrien eta argibiden aipatzea,

Hala nola Mækenaz batzuen Liburu handietan hastapeneko orrialde handiak – Printzeari eskaintza, eta Aitzin-Errana, eta Aurritzlariaren Solasa,

... Lur berri batzu, gainalde hartan, hala nola emazte handi adineratzen ari diren batzuen usain azkarra,

Lur berri batzu, gainalde hartan, adin orotako gizonen igaitean, ahaidego gaitz ohargarriaren kantatzen,

Zuhatzetako lur guzia, gainalde hartan, bere itzal ederrenetan leriartzen, bere trenza beltzenaren eta lumaren aphaindura handizki egina idekiz, hala nola haragi ezkongei eta azkarraren usain ona mundu huntako izaitte ederrenen ohean.

Eta ur ephel eta itzal hoxtura bat da, adin orotako gizonen igaiteko, ahaidego gaitzaren kantatzen,

Eta adin gutiko lurren hoxtura bat, betiereko gauza batzuen usainean, betiereko gauzen alderdi huntan,

Eta ezkontze aitzineko amets bat bezala hartan gizonak bere lerroa baitaduka oraino, bertze adin bateko muga, orsto beltza adi-araziz eta ixilaren abartzeak silabategi zabalago batzuetan.

Lur berri guzia gainalde hartan, bere ortzizko eskudoaren azpian, neska ile horien burugaineko eta Sachem-aren lumatzerekin,

Lur guzia ezkongai et' azkar, Arrotzaren urratsean, bere handitasunezko alegia idekiz ametsetara eta bertze adin bateko ospetara,

Eta lurra marra luzez, bere lerroalde luzetan, lasterka, itsasoz itsaso, izkirio handiago batzuetara, munduko idazki ederrenen hedatze urrunean.

*

Hara ginoazin, bekoz Sartaldera, ur berrien burrumban. Eta mirazko egintzen sortzea da oraino gizonen lurrean. Eta zure abere margolatu guziekin ezta aski, Audubon! gaineratu behar gabe ere itzali diren mota zenbait: Urtxo joailea, ipharreko Kurlinka eta Martin-xori Handia...

Hara ginoazin, sagailoz sagailo, Sartaldeko mailetan. Eta gauak bazuen lurreko gatz beltzen usain ona, Hirietarik lastoetara jalgi orduko, aire zabaleko emazten larru titakatuen artean. Eta emazteak handiak ziren, zekale 'ta iranjakien gustu eta haien soina bezala moldatu gariaren.

Eta gordetzen ginen, oi neskak, saletarik jalgitzean, arratseko higitze hori oraino zuen adats libratuetan – ezanza eta idor usain gori guzia, zuen inguruan, bertze nunbaiteko dirdira bat iduri... Eta zuen zangoak luzeak ziren eta halakoak nun ametsetarik ustegabetzen baikituzte, ondartzetan, arratseko suen luzatzean... Kantuz ari den gauak Hiriko Laminategietan eztu marka garbiagorik estilo goieneko burdin-landegietako.

Eta nork du bada gaur lo egin? Treina laster handiak iragan dira, bertze adin bateko hobietara lehian bere horma hornidurarekin bortz egunendako. Bazoazin bekoz haizera, burdinaki xuriz loturik, indarlari batzu bezala zahartzerakoan. Eta hainbertze aireko ondotik abiatu zitezteen, oihuetan!...

Ibaiak gaindi ditela bere uholdetan! Eta bidetako zirritak mendialdera hats bahiturik atxik gitzala!... Alde bakarretako Hiriek baderamate bere zama karrika muturretan. Eta neska berri batzuen oldea da oraino Urthatsez, baderamatela, nilonaren azpian, bere sesuaren amanda frexkoa.

Eta mezuak hari orotan, eta mirak onda orotan. Eta higitze horri guziari lotu higitze berdin batez doa ene poema ere haizean, hiriz hiri eta ibaiez ibai, lasterrez lurreko sagailo zabalenetara, hauk berak bertze sagailo batzuen ezkontideak et' alabak...

2

... Urrunago, gorago, gizon lerdenak bere zaltokietan doazin lekura; urrunago, gorago, aho meheak, ezpain hetsiak direnera.

Aurpegia luzaz Sartaldera. Sartaldera abiatu diren lurren harramantza gora-gora batean. Lur gora ordoki ethengabekoen joaite lasterrean.

Eta bururatu da, gure gibelean, jarraikitzen zaikun begi gordean, Tragikoen Harresia bezalako itsasoaren erretaula goraren igaiten ikustea.

Urte hartan bazen ere, zuen adarrezko athetan, abere phizuen usain hertsagarri hura guzia, muthurraz beheiti, lurraren aztigoa ibilkarietan eta lupeko mas korren zurru-murruaren handitzean.

Negu Kain bezain kuxkulatua, bere burdinazko hitzen egiten, betiereko ezkatetik jantzi eremu urdinetan errege da,

Eta lurak bere mukurruan, Estatu berri batzuen zergekin, biltzen ditu, larrainetik larrainera, hetan legeak izkiriatuak diren burdinaki muskerrezko zati handiak;

Eta alde hortan, Haizea da!... Ibil dadila izpirituko errhautsen urruntasun garbi izoztuetan:

Orre zuhatzak gatz beltzezko bere sua xorroxten duen leku orotan, neurrigabeko gizonak harri berri zutitzea gogutzen duen orotan;

Lantzaz eta hezurrezko tutaz ihaurtuak diren lekuetan, abel-behatz hilez eta hegal muxarrakinez ihaurtuak direnetan;

Haritz eta aztigar hegi gora horietarano, izai eihartuen zaldi lerroek zainduak,

Hormaz hartu ur bilgune phizu horietarano, han diragan Urteak, joan den larrazkenean, baitadukan oraino elhekatzeko ikastaldi hain gora;

Hiri-harresi eta phezoinetan eta doan haizeari eskainirik dauden aldapa handi horietan, zuzi multzo gelditu bat bezala,

Burdineria latz-harrotu hortan guzian lurreko zalduneriekin eta “oztera” oihuz ari diren indar gerlari horietan guzietan, harma ixtorio handi hartan guzian

Eta neguko hitz-laxo handi horiek oro, Mundu Zaharreko iletan Mundu Berriaren otso ihiztarigoa baitira...

Moldeko lan handi batzu ari direa, lan handi batzu, gogorki, Urte berriko harpetan egiten?

Eta hegaz-pean Neguak ari daukua bere garaziazko giltza aroztegian lantzen?

“... Negu basa-idi bat bezain kuxkulatua, Negu zurda zurizko hauna bezain tinkia,

Negu arzenika gorrizko phutzuduna, olioaz eta mundrunezko zaflekin,

Negu ezkunk eta karaba eta hikori zuraren khe gostukoa,

Negu prisma eta krixalduna ikatz-harri beltzezko bidekurutzetan,

Negu lore-ziri eta zuzi gabea, Negu arrosa eta igeritegi gabea,

Negua! Negua! burdina zaharrezko hire alzifre morkolak! hire harrizko udareak! hire burdin-horizko mamutxak!

Hainbertze harnabarrezko har zuri, et' azkazal azkar, eta hetan jakitatearen olarroa bizi den adarrezko atabal,

Negu ginarrri eta lar-mehe gabea, hiretako hoxtura oro emaztearen soinean baitatza..."

Eta sehiakilako lurrak, biluzirik, Neguko zeruan berregiten ari du sehiaren ohea.

Eta zuk, oi Gaua, ur berriak kanta dezazkezu gresean eta zur gorrizko aspiletan!

Huna laka gorrizko bihikak eta udalatzen koraila, zuen eztei indiarrendako,

Eta basoiloek maite duten zumakearen udare gorri beltza...

"... Negu tratulari bat eta ofiziozko soldado zahar aphezen eskuko gudari bat bezain kuxkulatua,

Negu zeruan herriz aldatze zahar batzuen kolorekoa, azkarren lurrean dabilzan larrueria batzuenekoa,

Negu gutan dirdiratu et' azkarra! Negua, Negua, aizkoren ederrean eta golde-hortzen iluntzean!

Negua, Negua, Urte beltzaren aroztegiatiko suan! Athera gitzak eztitasuneko ipuin batetik eta haurzaroko timbala frexkoetarik ametsaren bafadan.

Ikas ezaguk burdinazko hitza, eta jakitateko ixila hala nola adinetako gazta urtzaleaz ahatzi burdin-urtuezko untzi handien josturan..."

Herri handi berri izenburu ez ikur gabe bateko atharian, burdin-hori muskertu eskaintza ez mila-urtekorik gabeko herri handi bateko atharian,

Haizearen oldean haragizko erhi bat goitituz, galdez nagok, Bothereduna! Eta hi, ohar hadi ene galdea eztela ohikoa.

Ezen beharra gutan handia izan zen, eta ohidura oro ukatua – hala nola poetaren athean hitz-neurri zahar, alkaika ala eskazon baten galdea.

Eta ene begitartea haizean da ere. Bere garraren gosearekin, arnoaren gorriarekin!... Gurekin jeik ditela haizearen berogia bortxukoetan! Demagutela, oi bizidunak! zor zaukuna bere betean...

Hiri galdez nagok, betegintasuna! – Eta halako ixila da...

... Harri handi batzuek haizean har lezakete ere ene ixil egoitea. – Xorien lekuz aldatzeak joanak dira Mendean zehar, baderamatzatela bertze urtaldi batzuetara bere hirur kantoineko handi hautsiak. Eta milakoak milaka dira haien nahitara, horma-meta urtze bat bezala ihes doan zeru baten baztertzean.

Joan! ihizi arin horiek oro doazen lekura, hegalaren eta adarraren nahasmendu handi-handian... Joan! zisne bortitzak doazenera, bere emazte ‘t’ aingira-morena begiekin...

Beherago, beherago, haize ephelak barreatzen direnera, trenza luzetan, aireko goroldioetan hara... Eta hegalak munduan gaindi ihizin batasun higikorrago bat sare zabal et’ argalago batzuetan azotatzen du...

Ezagutzen haut, oi Hegoa ibai handi-nahi batzuen ohatzaren berdina, eta hiri mahastiaren ezin egona neskaso hezur-minduen sabelean. Ezta jainkokiaren etzangian ibiltzen mina bildu gabe; eta hire zerua haserre poetikoaren berdina duk, egintzako atsegin et satsukerietan.

Badakiat itsasadar asebetetako zolan, Imperio bururatze batzu bezala, gutiziaren olde arrak ur libroetako mahia higi-arazten duela,

Eta ene aurpegia atseginenez murgilduko dutala uhaitzen malda muskerretan dauden baino mailkatze zabalago horietan – gauza hitsak lezera eta hunen zidal bihurtikatzetara...

Itsasoak marmukaz lehertu merkatuetan bere mustroak merke saltzen ditu. Saltzeak antxera eta enkantetako suetara! Ambara urdinezko meta guzia, dotrina bilduma bat iduri!

Kolonen itsasoa da oihukatze publikoan, soin-burdinazko zahar eta berinaduretan – debru-iraitzeko harramantza eder bat! – eta arrosa handi katolikoa berunetarik atheraia zaharkin satzalearendako.

Ha! goizalde berri bat mirets dadila bihar gatzarri mukerrago batzuetan, eniz ni urtaro hilen bihotzean elhorria zorrozuko duena.

Aurpegia bertze seinale batzuez azotatua, jeikitzen dira, bere izenean, ur handien alde huntara berant ethorri diren gizonak. Ezti izanen dira Berritzalearen urratsetan lohi bizi horiek, berrirabazi den higadura azkena ahitzen den lohi arin horiek.

Et’ aizkorarien herritik ibaiak jausten dira bere haunen begi-pean, ahoa burdinaki xehez eta basa-odarrez beterik.

Eta Uholdeko Liburu handietan eremaiten diren haun-begien ederra ezta ur-hegitarrek ikusi gabe izaiten. Baina ur handitze gorago batzuek zabalera abiatuak jausten dituzte, lerroa lerroaren gainean, ene kantuko mailak – mende huntako lan hilen huste handien hotsean...

... Ur muskerrera bidazkitzue, oi zoriak, bere iztiletik ekhendua diren lohizko irla handiak! Belarreriaz, irin-ligardaz orhatuak dira; aihen joaldunez eta suge loratuez trenzatuak. Bere lekaduretan hazten dute mintzaera bitxi baten bikea.

Aztigoako huntz batzu buruan, Sugearen begi beltzak bidaturik, doazila, mundu huntako gauzen mogimenduan, ha! palma landaretzetara, manglegetara, liga eta ur libroan ahakaldetako zabalgunetara,

Jauts beite, munho sakratu, zeru zorna eta usu kolorekoaren azpira, bere haun-begi-pean bazter-uren zama garraiatzen duten ibaiekin, tela eta hertze ‘ta umuntzi handiekilako bere gatina garraiatzen dutenekin – bere ithurburuetako treila guzia eta zuhatz handi ileduna bere zaineria guziaren luzatzetarano...

Erlume batzu badoaz xixtuz, kofoinak utzirik – mamutxa adarkia bezain gogorren mitralla bat!... Aingirek ur-hegietan eginen dute bakteria bihurtuen bere bidea...

Eta Anhinga Xoria, alegietako ur indi-oiloa, badela egia baita, haren hor izaitea atsegin bizi baitzata eta bizitzeko xoramen – eta aski zata bizi dadin –

Zein mirazko egintzen orrialdean, zein ur gorraileen eta arrosatto xurien mahietan, krokodil handien urrezko gambaretan ezarriko du gaur bere hegaldatzearen arrazoingabeko marra?

*

Aitzin-berriak ibilki. Haize Hego. Eta zenbatzen gutieste handia lurrean! “Haize Hego bat jeikiko da...” Aski erran da, oi Emazte sintsak, eta entzun nadila: emaztearen esne guzia galduko dea oraino gutiziaren aihenetan?

Lurreko zuhatz ederrenak bere orstoak haizean utziz buluzirik jarria dira sasoin-gabeen. Biziak bere azal haustetan irri badagi oihanetan ihizien ilortzez. Eta ikusi dira, ikusi dira – eta ezta hortaz axolarik ezte lakotz

–

Mamutxa hegaldatze horiek hedoika zabalean galtzera joanki liburu sainduetako zati batzu bezala, dabilizan profezietako eta ethorkilari, salmolari errepiketako xirtxika batzu bezala... Erran zaie, erran zaie – ha! zer etzizeen erraiten? – itsasoetan galduko zirela, eta behar zela itzuli: oi hu egiten zizeen, oi hu egiten – ha! zer oi hu etzizeen egiten? – itzul ziten, ha! gutartera itzul ziten... Baina ez! Bazoazin izaitekotz alde hortara, haizearekin hor galtzea baita! (Eta zer egin ginezakeen?)

Lurrean karamarren lekuz aldatzeak, hauna ezpainetan eta giltza gora, itsas-bazterreko Landaretze handi, Armada Federaleko kanoi bateria batzu bezala neguko itzekatuatarik abiatzen dira. Marmulo beltzaranak musikako gambaretan dira eta bihitegian; suge beltz kurubilkatuak lihoetako hoxturan, boketategi kanfre ‘t’ alzifredunetan.

Eta nehork eztitu ikusi Andere Ederrak bizitegi gora zutabekilakoatarik ihes egiten, ez eta haien ahizpa gorrailak bere haun eta kokospekoen joko ederrean. Baina lur kreatu gorri eta urrean, ha! arno gorraxtarekilako, manga-ondo gorraxten kolorekoan, eztuta ikusi,

Ethilaz et’ arrexinaz mozkortua adin orotako orstoen nahastekan – bere elhearen erlategian bezala, hitzetako eliaren erdian, mintzaeretako gizona bere jainkoaren trabarekin guduka – eztuta ikusi noizpaiteko Bidaria halda-maldaka, manga gorraxta eta muskerretako lauzadan – edo su-hori koloreko beltzez titatuan – larru eta ardaiezko miliun udaren, gaitzeko amanda eta zur gogorrezko kuxkuen erdian bere baba mehe eta dilista biribilen husten ari, sineskeriako xeheria bat bezala?...

*

Oi hi itzuliko hizana, ortziaren azken burumbetan, arrosen eta ukatu diren gauza guzien orhoitzapen hastiatuan, zer duk bada oinazpikatu hor, zurbeltzezko eta nakarazko ohe handietan, giza-haragi ororen artean haragi oraino arrai, hilkorretik?

Haizek behar bada eremanen dute, gau bateko gure Ederrekin, gipura xuri burdineria zilharreztatuekilako egoitza hotxa, eta haren berinakizko argi dilindako guziak eta etxeko khutxa guziak, arratsetako zaiak jantzitegian, eta Arrotzaren paperrak...

Gure abereak orduan, guziak zelatuak, azkazalaz eta behatzaz khexatuko dira adarailu gorraxtezko zabalza zaharretako ezkata eta hezur harrabotsean. Eta hori ontsa egia da, egiaren lekuko niz. Min beltza handitzen ari da Ederren Uda hetan izan zen baratze handien zolan... Harma ukaldi zenbaitek, ortzizko zeruaren azpian, urrearen balioan argitzen dituzte oraino ohetegietako azken pilpirak, Sartaldean... Eta Arrano arraintzaria, bihotz-higitze eder hortan guzian, jin dadila bere bazkaren uztera zuen alaben igeritegiaren gainera, handiegi da oraino eta molde gaitz poetaren ixtorioan. – Joan behar! Joan behar! Barreatzalearen Hitza.

Horrela jainkoaren nasaitasunean, gizona bera nasaian... Horrela jainkoaren galdukerian, gizona bera gaizten... Gizon abereduna. Gizon maskorduna. Gizon giriseilu lupekoduna.

Eta bada oraino hor aieruko gai... eta ondartzetan hegal basa batzuen joitean jaio den gizona bezala, beharko dua beti joaite berri bat ospatu?

Haragi orok han amor emaiten duen lohizko herrietan, emaztea bere pumpuletan, lurra bere min haritsueta, unti laxatu batzuen garraio oso bat zen, hala nola ilhorkin egile batzuen oihaleriak.

Emazte Kantarien arrosa beltzak goizera jausten ziren argi-hastez zikindu ibaietan, alkohol eta lobelarren gorraitasunetan. Eta Alhangursen burdineriek, korrale hutsetan, debaldetan zuten koral xurizko bere arhe zuria aroaren kontra goititzen. “Akhidura handia dut orotaz...” Leloa ezagutzen dugu. Hegokoa da...

Ha! iraungi daditzatala, ha! iraungi daditzatala leiho saretetako zirietan bihotzminez dauden zorion handi horiek, bertze nunbaiteko argi handi horiek, hor eskaintzen den palma oro ja bere izalaz phizu baita.

(Eta Mezulariak salatzen gitu mezuko ordu berean. Eta zer zata hor ebatsia, kanfre-ondo lilituen bapateko itzultze hortan – ufako orotara zimurtu oihaleriak?... Eta ekhalde-haizea huts egitera doa, saloin hutsetan, leihoetako oihal arinen lezetan...)

Akara beltz eta hil-beila kaperako gustu batek abereari burua zuti-arazten dauko jeien iragaitean. Itzalak harzurizko gambaretan bere maskak eta iratze beldurgarriak erakusten ditu.

Eta Herioak zabalzetan ametsez zagola emazten ederrean, argi berezi batez phiztu du gaur izarra Emazte Arrotzaren bekokian; jausten ari baita bakarrik, gauerdiko ondoan, lurpetako gau erregetarra zeru-kolorez dirdiratzen duen igeritegi harri-urdinezkora.

*

Ha! bai, bertze azal batzuek sala gitzatela zitroin berdezko gure edarietan; bertze ezanza batzuek gure ametsetan, aireportuetako igurika galerietan! Eta azkarrago atxikiko duzue, oi haizeak! azartzeko zuzi gorria.

Abisua jainkoaren ganik! Hastioa jainkoaren ganik!... Lo egilearen buru gainean arranoa. Eta usteldura gure janari guzietan... Ikusiko dut zer egin. – Aurpegia oraino Sartaldera! hegalaren eta burdinkiaren xixtuan! Ezanza gustu horrekin ezpainetan... Arimako gustu geza horrekin, mihian, hala nola buztinezko piaztra bat...

Egun harriaz da axolatu behar, eta harriz bi itsasoen arteko unearen, osoan, betetzeaz, harriz bi menden arteko unearen. – Utzak phizatzen, oihalen zolan, eurien bihiken azpian, herri aphaal bateko urtze guzia, ilargitaldi aphaletan bezala, zeru ernari phizuaren azpian, sabel eme guzia bere tuta, adar eta maskorak agerian...

Gure bideak gogor dira Sartaldean, harria bere oldean hara baitoa. Mehatu behar, mehatu, hezurrerano! Hegaldatze ‘t’ alzeiru arinen punttan, addar eta hegatzen punttan, ene karguak eta hartzeak han ditutan harriz eta hezurrezko herri hartara buruz.

Hor gauza oro ezeztatzera badoaz, oponzen eta zabilen landaretzen artean, eta hainbertze landare lumatxodunetan; otan ortziaren erdian, hirur koloretako sofrea margolatzen duela mundu baldituaren bapateko bafada.

Jendalde bat jeikiko dea oraino burdin-gorritzko sagardietan? Haran hilak, oiuhu handiz, atzartzen dira eztaietan, atzartzen eta bere azti ohetan berriz khetan!

Haizek badute athari ezin ikusi batzuetako suen usaina. Buztinezko athea hestekorik gabe da. Pitxerra arratseko hori-gorriduretan dilindan... Xilo gutiagoko buztina larru iguzkiz ilunduekilako neskatoen sahetsetan, idortez asebetek.

Gain hartan dira zuhurtasun bateko azken zoriak bilatu behar. Aurpegia hezurrerano idekirik, ahoa haizearen tapoinari gogor, eta bekoki hasaz zirimolen aho-heskailu gogorrean phizatuz, zirgariaren uhalean bezala,

Harri ixurgi latza hegal-gogor eta koraleen phorroskatze batean berriganen dugu. Han bilatuko ditugu gure hutsune ‘t’ arraildurak. Ozkak huts egiten duen lekuan, zutak berak xora gitzala, bere izkinan!

Eta printzen arako gure ikuspenak gaur erromesaren harrizko ganibeterian etzanen ditugu... Orhe ubel gogorduraz urbainduarekilako ur-aphalgunetan, bada adar, burhezur metatze bat, haize gordinek bildurik.

Zaldunek ordokietan, hilen untzieria oinazpikatuz eta ardi gorraixten hezurak, zeru betean errhauts eta ezgardazko gune bat suntsiten ari dute... Harma bildumetako arrano bat airatzen da haizera.

...Eta herri oso bat ustelduraz hartua, arrats aitzin, badoa aroan hara gorritzen ari diren ilargien batzera. Eta Urtea hegietan iragaiten... ha! derradatela zeren gatik! Entzuten ditut lurraren adin berri bateko hezurak handitzen.

Orhoitzapen, orhoitzapen! zuetaz egin dadila Ameslariaren ametsetaz bezala gauazko uretarik jalgitzean. Eta bizi izan diren egunak izan ditela guretako izen-gabeko batzuen aurpegiak bezala. Gizona bere itzalaz alha dadila lekuz aldatze handiaren aldapetan!...

Haizeak azkar dira! Haragia labur!... Arratseko minoldetan urrez eta suez listen diren hegietan, orratz dirdiratuenez ileztatuetan, mamuxka arraidun bitxi batzuen erdian,

Ehiza hihaur mota garbiago batzuetan ikharatzen, bere zoria idekitzen daukun neurrigabe 'ta haurkeriazko harekin?... Atzarririk nago. Ikusiko dut. Eta bada hor oraino aieru ukaiteko gai... Doinuz aldatze berri bat erakats daditala!

Eta baderraketazue: Hori nun hartua duzu? - Mintzaera argian ukan diren hitzak! bi aldapetan eman diren itzulpenak!... Hihaur orhoit-harri eta izkin-harri!... Eta bidez galtze berri batzuetako, auzira deitzen haut hire alki bikunean,

Oi poeta, oi elhebiduna, bi izkinetako gauza ororen artean, eta hihaur auzigai diren gauza ororen artean auzigai – gizon jainkoaz asaldua! Gizon ezpaian mintzo hizana!... ha! hala nola gizon bat hegal eta arrantz nahaste batean galdua, arrano-buzoken eztieta!

Eta hi, behereko Iguzkia, betespal gabeko Izaitearen abretasuna, atxik ezak Amerikako lehoinaren hire begia harrieriazko ogi hortan guzian!... Irriskukoa kantu hunen lasterra hara ereman dutan egintza... Eta bada hor ere aieruzko gai. Baina Haizea, ha! Haizea! Haren indarra xederik gabekoa da eta bere buruaz hartua.

Iragaiten gira, gure itzalak ere... Lan handi batzu, orstoz orsto, ixileko lan handi batzu moldatzen ari dira geroko ohatzetan, xitatze itsu batzuetako zurigunetan. Hor ditugu gure izkirio berriak hartzen, lapitz handietako orsto lotuetan...

Eta haraindian dira goaitatzeko kleda biziak, gaua oiuhu handietan hastiatzen duten ozka gorak; eta itxuratzeak hegietarat abian, gauzen itsutasunaren erdian; eta harri zuri geldi-geldiak suzko aizkorer bekoz beko.

Eta lur gorriak profezietan ari dira behartuaren ganibeterian. Idazkiak lur zigilatuan emanak ere. Hori guzia egia hutsa baita, egia dela uko badagit. Eta baderraketazu: Nun ikusi duzu hori?... Maska bat baino gehiago handitzen ari da izaitzez argitan dauden gisu-harri goren bekokietan.

III

1

Gizonek noizpait haizeari bekokiaz ihardokitzeko indar hori ukan dute:

Bide 'ta ur libro bilatzale, Sartaldean bidexka bortxatzale, urtez beteak diren erreka eta mehaka eta maldetan gaindi – Karta eta bula

Azterlari, laneko Buruzagi eta menturako Mezulari, burdinaren balioan atheka goretako antolamendua baitzegiten, eta urrunera zero betean itsaso berrien metatze hori, bere harrizko morteuru hitsean, hala nola ametsetarik eztera-pean ahuntz-kormio esnatze bat...

Eta joan ziren haraindira, lurreko hegal gogorren azantzean, ametseko eta egintzako Bidelari handiak: Solaslari urrunez amikatuak eta leze orrogilen Salatzaleak, hegi bahituer Hel-egile handiak eta mugetako zorien Eztabadatzaleak, bere ibar urdintzera emanetan baitzeramaten begi bat luzaz begitakoen inguruaz ilundua.

Eta lurra zabaleko eremu goretan zalantzan ari zen, haztakin ezin ikusi batzuen burdin-gorritzko untzietan bezala,

Eta bazen alde orotarik, lurraren loratze batean, India Handi uretik jalgi batuzen hoxtura berri bat, eta Ondoriotasun handi batzuen idekitzean agintza hats bat bezala – emaitzak diru galtzetan eta lan gabeko ofizio egiteak, ontasun garbien jartzeak poeta handi zahartzeratuen alaba noblendako...

Kaska arinaren azpian Zaldunak, bere zamariari xertaturik, igaiten ziren, larruaren kurrinkan, bertze arraza bateko laharren artean... Bizarra soingainera eta harma orrazez, batzuetan gelditzen ziren, harrizko mailetan, haien gibelean zero betean uren goitizeari jarraikitzen zizakon lurretako goratasunaren neurtzen. Edo ere, burua gora, horma handiek utzi harriez inguratuak, begiaz eta mintzoaz izartzen zuten bide moztu ixila, mendi inguruaren zolan, hala nola lo egilearen ikuspen handituetan harresi neurrigabea, leze zolan, zentzordatzezko mutur batez eta burdin-hori belztuzko erhaztun batez hetsia.

Eta itsasoak zabal ziren, bere ametseko mailetan, horien orhoitzapena egun batez mail gorenetan galtzen baitzuten.

Eta, itsas-hegi aphaletan, itsas-artetan, luzazegi entzuna ukanik euripean asperdura lohitegietako lohiaren zilatzen, eta, ibai ezpaiekoen ohatzean, luzazegi eremanik, hala nola blasfemioak, bere untzixka gorbelez eta zamari itxainez phizutuak, uretik jalgitzen ziren, ezpaina irriaren krakoan gorarik, zero urdineko sukarraren ziloetan, alkoholaz eta haize handiz azotaturik.

Eta euriak arin baitziren malda hetan, lurraren itxurari eskainirik harmak emekiago izan ziren iluntzera emanak: lantza huts eta ezpata garbiek arimen beila han egin zuten bere jaben jakingabea... Baina haragi arrotzak hunkitzen zituen onddo-gorringo eta amanita gustu batekin gizon hek, Girixtino herrietan, mertxika xurien haragia baino haragi horiangoetan jaioak... Haragi orotan emaztearen semel! oi gizonaren urratsa, adinez adin, lurreko pheldo ororen gainean!... Gizon horiek burdina-pean han izan ziren lekuetan, han izan zirenetan haize-pean, igaiten ari, aberen urratsean, lurraren itxurarekin,

Bidegai handiak oraino argitan daude izpiritu gibelean, hala nola azkazalaren hatzak zilharrezko untzien bizian.

2

... Gizon batzuek ere, haizean, bizitzeko eta igaiteko molde hori ukan dute.

Fortunako gizon batzuek, bazeramatzatela, herri berri batean, bere begi ibaiak bezain emankorrak.

Baina haien bilakuntza etzen izan aberastasunez eta izen handiez baizik... Lephoetan buzokek, bere hegaldatzearen itzulikan harturik, ingurua zabaltzen zuten eta giza-ontasunaren neurria. Eta astiak oraino, itzalez aberats, bere entzunaldiak hedatzen zituen kampamenduetako bazterrera. Ithurrietako gauak ostatatzen zuen Erretordainen zilharrerria...

Eta gero ethorri ziren harremanetako eta negozioko gizonak. Bidatze handiko gizonak basa-idiz eskularruztatuak soberakeriako. Eta justiziako gizon guziak, polizia biltzaleak eta milizia hartzaleak. Ubel-aranez jantzirik Gobernariak bere alaba hudo usaineko haragi gorridunekin.

Eta gero Aita sainduaren katolikoak Bikaritegi handien bila; Aphezak zaldiz amets bazegitela, arratsa ethorri eta, diozesa hori lasto koloreko eder batzuez harbizi gorraxtazko bere inguru-erdiekin:

“Bada! Amets egiten ginuen, jainko sudur zabal haien erdian! Elizako manu batek ordena dezakula harri arrezko nahasmendu hori guzia, hala nola organo handien berritzeko landegi bat! eta mendi-lerroetako haizeak eztitu harpetako ezpainetan, izkirio khexagarri batzuetako, zori-arratoin eli horiek gau aitzin ikusten baitira alikimixta batzuen orhoitak bezala...”

Ethorri ziren gero Erreformalari handiak – oskiak laur-kantoin eta aztalak aphil, xapela begirik ez satinik gabe, eta bizkarrekoa zuzen izurkaturik portuko mailaldetara:

“Eman dezazkutela, itsaso bietan, gure semendako itsas-baia berriak, eta, gure alaba bekoki zuzen gaitzaren kontra estekatu trenzekilakoendako, hiri argi karrika zuzenekilako batzu jende zuzenaren urratsari idekiak...”

Eta gero ethorri ziren Ihardokilari handiak – ihardeslari eta batzarkide, baztertzale ‘ta erasialari, hegal orotako eta ondar orotako dotrinalari; aitzin-bidari, azken-buruko eta jujari – lanjerreko eta bahimeneko jendeak, eta gizakien ametsetik itsaso zabaleneko bidetara haizatuak oro: lur-

ikhara handietarik ihes-eginak, hondamen handietako ahatziak eta zorionetik norapait joanak, legelariaren atxean uzten zutela, philda zama bat bezala, bere ontasunen nolatasuna, eta bere izen falsuen azpian ezteki Huts-egiteko Izenburu handietan galduak ibilki...

Eta haiekin ere burutaldiko gizonak – alderdikoi, mesmeriar eta izpiritixta, suge adoratzale ‘ta ithurri bilatzale... Eta oraino xederik gabeko gizon batzu – urtxintx urdinarekin eta zuhaztetako igelarekin elhekatzen diren hetarik, gabesturu gabeko ihiziarekin eta erabiltze gabeko zuhaztarekin:

“Ha! utz gitzaztela, ezaxolagarri, gure lehia gutiari. Eta bertze batzueri, oi zerbitzukoak, geroaren inharrostea burdinazko bere leketan...”

Azkenean jakitateko gizonak – fisikolari, harri azterlari, kimialari: ikatz eta nafta usnatzaleak, lurreko zimurduren ikerle handi et’ adin aphaleko seinalen argitzaleak; idazki zizelkatuen irakurleak harrizko atabaletan, eta, amets eder baten ezkata hetan datza urretegi hutsetan baino gehiago, grafitetan eta uranioan urrezko gauerdiaren bila hetan itsasohoinaren zuziaren inharrosteko, hala nola Erregen ebasleak Faraonaren gambara aphaletan.

...Eta huna bertze adin batekoa, oi lurreko Kofesalariak – Nahasmen bitxi bateko aroa da ere, arimako menturatzale handiek lehentasuna gauzetako indarduner debaldetan eskatzen dauetenean. Eta horra bada bertze berexkuntza batekoa, oi baztertzeak!...

“Ezen ezta gure eskea burdin-horiez ez urre hutsaz, ez ikatzez ez naftez, baina hozia nola bizitegi zikinetan makila-buruaren azpian ere, eta nola Ikuslearen harpetan soinua zimizta-pean ere, bilatzen dugu, udare mota berrien amandan eta arraultzettoan eta hexurrean, indarraren sutegian haren oihuaren phindarra bera!...”

Eta Printzearen ikertzalea entzutean aldixartzen da – ikuslaria ikusteko atharian bezala; Mistroaren galerietan ihiztaria bezala; Orientalixta laka beltzeko bere orstoan bezala, sar-hitzaren giltza mirazkoetan.

Sortzeko den iguzkia! Erregeren oihua!... Kapitaina eta Erreienta Mugetako manutegietan!

Atxik ezak ontsa hire zaldi ikaratua lehen olde barbaroaren kontra... Lehenbizikoetarik hor izanen niz jainko berriaren sortzeko...

Arratseko urdategietan jalgiko dira zori berezi bateko zuziak!

Eta bertze indar batzu jadanik ari dira gure hatzetan haserretzen, harriko ekhi-geldi hutsean: burdinkian eta berriki izendatu diren gatzetan, ixtorio suhar bat marratzen duten zifrak doatzin gai xoratuan.

“Laidoztatzen haut, gauza, basarstoz eta neskasoz argitan: edertasun handizko leze orotan, ixilak han bere sareak hedatzen dituen ilunbeko erlika-untzi orotan.

Neguko ezteiak dira izpirituko ezpaten suan, diamant beltzeko arrosa handien suan, hala nola horma lantzak krixtailen sutegian, hala nola argi-haste berri batzuetako jauzte berinaren hautsian:

Zirrintzaka ihardespren argidunen gurutzatze orotan, eta orotako nahasten erretzen geroko ezanza baten urdin arin ezin erranean!”

Gure harrizko mugetarik munduan gaindi zabilzaten zalduneriak, oi jainkokiak kaskaren eta burdinazko maskaren azpian ibilki, zein gudugunetan badagizkitzue zuen egintza goien bereziak?

Basaltetako liburuki handietan eta Urte beltzeko Lege-bildumetan, bila ezazue, bilaunak, legelaria nor den!

Han gure taulak eta karkulak edirenen ditugu galtze berri batzuetarako. Eta ja Eguerdi da jakintzetako joko-taulan, hutsaren ingurubide garbi saildutegi bat bezain argituan.

(Hain urrun, hain urrun bertze ur-bazterrean, jadanik hain urrun, gerlako zuen ixtorioetan, hetan gure ametsetako izarra goiti zoan indarreko xara handietan...)

Eta bere loriako korralean ixilik dabilan Mustroa, otan Begia ezin asmatuzko izkina batzuetan ihizin, orzantz ixil bat badagiela krixtail-harri orhoit hautsian,

Dramako urrats lehiatuan baderama urrunago gizonaren urratsa, bere estekagailuaren botatzean hartua:

Gizon argi-basoduna, gizon antenaduna, gizon jakitatearen gatinez zamatua – aire gaixtoen hegalez kukurustatua zimiztaren atsegina-pean, eta bere sutzean bera dena zimizta.

Begitarte beharria bekiola ixtorioko eskandala gaitzenean!... Eta herritik bertze joaite bat da zinez, oi geroko bestak! Bazko publikoaren zabaltzean eta laikotasunezko gai handietako trixtezia.

... Beharria izate bakar baiten ithurrietan, beharria adin bakar bateko kalaxkarietan, beha dago, xoratua, miraz urratua den harrizko gau handiari. Laidoak eta mehatxuak hizkuntza orotan ihardesten daukute... “Agertuko hiz! zifra berri, harriaren marrakietan eta atomaren hatzetan;

Seinaleak iheslariago doazen taula handi dekekatuetan; Ibilkariaren aurpegia lerratuz doan urruno mirailetan – kheinurik ez-tuen iguzki-lore aurpegian;

Bertze uztardura batzuek laster badagiten haserrezko malda luzetan, ez-titasunezko zirimoletan eta asti neurrigabe bateko agintza gora atxikiaren azpian...”

*

- Eta Suntsitzalea bere beilako etzangian, ametsaren eta harriaren idorrean, bere zuhurtzian hetsia den Izaitea indar ez erranen korropiloan, bere gisu-hardoietan bortizkeriako jegin ohigabeko bat ontzen duela,

Beha dago, bekoz beko, bere botherearen zigiluari, hala nola urrezko iguzki-lore handi bat Mezerrailearen eskuetan.

4

... Baina gaia gizonaz da! Eta gizonaz beraz noiz da bada ariko? – Norbait munduan mintzatuko dea?

Ezen gaia gizonaz da, haren hor izaite gizatarrean; eta begiaren handitze batez barneko itsaso gorenetan.

Lehiatu behar! lehiatu! Gizonarendako lekukotasuna!

*

... Eta Poeta bera mila urtetako bere gambaretarik jalgitzen da:
Lurreko lezafinarekin eta bere gauetako Lagun gordearekin,
Bere jende zerbitzariarekin, bere jende jarrailearekin –
Ithurri bilatzalea eta Izar-azterlaria, Egurkina eta Gazkina,
Zapatagina, Dirularia, Ihiziak izurrituak,
Alauda bere umekin eta alhorraren Jabea, eta Lehoina maitari, eta
Ziminoa mirazko girisailuaren erakusle.

... Pairameneko gizon guziekin, gizon irriñodun guziekin,
Zola handiko ihizien hazleak eta lupeko ur eremuetan ibiltzaleak,
Harpetan iduri biltzaleak eta elizapetako zolan emakuntza
zizeltzaleak,

Gatzeko eta ikatzeko argidun handiak, mina-ziloetan igurikatzez
eta argi-hastez mozkortuak; et' akordeon joileak berotegi eta sotoetan;

Profeziategietako xoratzaleak, eta geroko jendalden eremaile
segeretuzkoak, gambara barnean iraultzetako legar izenpetzaleak,

Eta gazteriaren sustatzale ez ezagunak, idazki berri batzuen egin-
arazleak ikuspen phizkarri batzu urrunean hazten baitituzte;

... Eztitasuneko gizon guziekin, trixteziaren bidean gizon
irriñodun guziekin,

Herritik bahitu Erreginen larrantzaleak eta hiltzera doazin
ziminoen leriartzaleak hotel handietako azpietan,

Irratilar berunez kaskatuak eztei-aitzinetako ohen bazterrean,

Eta belogi arraintzariak ur muskerretan, harbizi eme 'ta burdin-
hori latinak doi-doia hunkituz,

Oihanetan ixtorio erraileak lekaxin eta onddo entzuleriaren erdian,
“blues” xitulariak gerlako landegi segetuzko eta entsegutegietan,

Eta ipharburuko etxoletan saldegizaina, kastor larruzko
oinekoetan, negualdietako argien zain eta gauerdiko iguzkitara egunkarien
irakurtzen.

... Eztitasuneko gizon guziekin, hutsaren langunetan pairameneko
gizon guziekin,

Balistikako jeinulariak, harroka-pean erreteliza gopoildunen
gordetzale,

Xiri eta gider eskuztatzaleak harbizi zurizko mahi ederretan,
bolbora eta sueria ikertzaleak, et’ airekoetako araukien zuzentzale,

Bere hormazko galerien buruan Matematikalaria athe baten bila,
eta bere trabakin itzeztatuen korropiloan Algebrixta; zeruko ogenen
zuzentzaleak, sotoetan betordegile ‘ta filosofo berina leuntzaleak,

Oro lezeko eta zabal handiko gizon, eta organo handietako itsuak,
eta itsaspide handiko gidariak, Biphil handi elhorritzatuak argizko bere
gormotsetan,

Eta gauazko Behatzalea, hari buruan, hala nola belarretako
ainharba marraduna.

...Bere jende zerbitzariarekin, jende jarrailearekin, eta bere philda
lerro guziarekin irriñoizko haizean, oi eztitasuna,

Poeta bere Mendearen hauskunean!

- Ongi-ethorria gizonen lauzadan, eta haizea ehun lekoetan belar
berriaren gurtzen.

*

Ezen gaia gizonaz da, eta haren berlotzeaz.

Eztua norbaitek munduan mintzo egingen? Gizonarendako
lekukotasuna...

Bere burua Poetak entzun-araz beza, ete bida beza jujamendua!

5

“Ehaut ezagutzen, auzigaia. Eta ene aburua da bizi dadin!

Haizera zuziarekin, haizera garrarekin,

Eta gizon oro, gutan, hain ontsa nahas diten eta suntsi,

Handitzen ari den horrelako zuzian argi gehiago gutan phitz dadin...

Khexagarri arimaren hatzminak hartan oraino jazarduran gaduzkan haragia!

Eta fortuna gora bateko aro da, arimako bidaiari handiek gizonen lauzadan lehentasuna eskatzen dutelarik,

Lur osoa bere eremuan galdekatuz, nahasmen handi-handi horren erran-nahiaren ezagutzeko – galdekatuz

Ohea, zeruko urak eta ibai itzalduneko aldategiak lurreen – behar bada ere ihardespenik ez ukaitez khexatzen dela...

Eta gauzen horrelako egite oso batez jabetuz hire ur bazterretarik urrunago, zuzendura,

Eztoazila erraitera: trixtezia..., hor laketuz – erraitera: trixtezia, hor egonez, hala nola maitasuneko bidexketan,

Hortaz bizitzea debekatua! poetari debekatua, orhoitaren iruleri debekatua. Izaitekotz urrezko orrazea begiko zirrintzatzean!

Uher hadi, ikuspena, arrazoineko gizona hor hisitzen zelarik... Mendian Ihiztariak elhorriz josten zituen dei egilearen betespalak. Gure neskasoak irrintzinaz ariko dira Zofixtaren ahetan.

Eta hala nola bidaiari elhea galdu duen gizon bat, ekaitz handi baten gatik, aire gaixtoaz joa baita egiazko ametsen bidean ezarrikeri ere,

Bilatu haut, irriñoa, bida gitzakan Ostaroko arrats batez ezin ukatua den haurzaroak baino hobeki.

Edo Argitua dena bezala, gauerdiko besta hetsietan, bapatez entzuten baitu alzifrezko athalderdi gora haizearen oldeari amor emaiten – eta zuzi guziak aurdikirik, erritoko mahi guzien barreatzean urrats egitera menturatzen da, eta beheko jainkoaren sarea gainera erori zako, eta alde orotarik hutsaren hegal ainiztuak, lurpeko leizorra bezala erotuz, bidea hobeki erakusten dauko –

Haizatu haut, arrazoinkia, gure abereak traban makertzen baitziren.

Zuzi gorria goititzen dugun atharrietan, gure ikuspenak murgiltzen gituen harpetan, hala nola emaztearen besoa, besaperano buluzirik, eskaintzako bihi untzietan eta jarroetako hoxtura sakratuan,

Begiez ihaurtu agintza bat da nehoiz ezpaintedin berdinek gizoner eginan izan,

Eta, bapatez, bertze mundu baten zohitzea gure gauaren eguerdi betean...

Zuen Bankoetako urre baba guziek, Estatuaren ardandegietan, elezakete horrelako aberastasun baten erabiltzea eros.

Izan bedite gure beiletako belarginean hogei itxura berri azpertzeari hartuak, hala nola Birjina batzu gure itsas-ezpondetako iztildoari lotuak!

Bertze ur hegiak ere bere emaitza! Eta gurra behereko Iguzki beltzari!

Konfiencia leinu gabeko mustro eta izar horien, korona bikunaren azpiko Printze ‘t’ Arrotz horien agertze guzian, bere ihizieria ezin ogengabea nahasten dutela gu Sineskaitzen urtetegiarekin...

Eta hik, har ezak lasterraren burua, gure beiletako begi handiegina! lezearen gainera ñiñika edekia – hala nola bizitegiaren gainera gurturik dagon gauazko itsasturiari suzko lorea bere urrezko goporrean, eta, argi biribilaren ur-begi ibilkariaren azpian, pasione-lore beltza haizen arrosan gurutzatua.”

6

Poetak lekukotasuna eman duen auzitegi goiena hori da.

Eta aiduruko azken muga hortan, eztagola nehor gambaretara joaiteko gogoan.

“Egunaren sortzeko xoramena... Arno berria ezta egiazkoago, liho berria ez frexkoago...”

Ahadia gustu hori zer da, ene arrotz ezpainean, gauza berri baitzata eta gauza arrotz?...

Nun ezten lehiatzen, haren hatza ene poemak galduko du... Eta hoin ephe laburra zinuten ordu hartan sortzeko...”

(Horrela Mezerrailea argi-hasteko zeremonietara aitzinatzen denean, mailez mail gidaturik eta alde orotarik dudaren kontra lagundua – burua murriz eta esku has, azazkazalerano, akatsik gabe – mezu laster-laster bat du haren orsto usainonduak eguneko lehen argietarano igortzen.)

Eta gurekin da Poeta ere, bere aroko gizonen galzadan.

Badoala gure aroko urratsetan, badoala haize handi horren urratsetan.

Gutartean duen egitekoa: argira mezuen ezartzea. Eta haren baitan ihardespena bihotzeko argizetik emana.

Ez batere idazkia, baina gauza bera. Bere bizian eta bere osoan harturik.

Ez kopien atxikitzea, baina jatorrizkoena. Eta poetaren izkirioa agerbidearen ondotik ezarria.

(Eztuta ere errana? Izkirioak ere bertzelakatuko dira. – Solastatzeko lekua: mundu huntako ondartzak oro.)

“Agertu hiz, zifra galdua!... Igurikatze soberakoak eztezala
Gure entzumena kitzika! zikin edozeinek ikuspenaren atharia
uher!...”

Eta gurekin da oraino Poeta, bere aroko gizonen artean, bere
gaitza bere baitan...

Orbaindu denaren ohean lo egin duena bezala, hortik guzia
zikindua baita,

Gizon ametsaz khotsatua, gizon izurrite jainkotarrak hartua,
Ez batere mozkortzea kalamuaren khetan bilatzen dutenatarik,
Errusiar zahar batek bezala,

Ez pozoin hartzea azeri-mahats landare zenbaitez – beladar ala
era-belar,

Amazoniako gizonak jaten duen Ologhi bihi biribila hartzen
dutenatarik,

Yaghe, behartuaren aihena, gauzen gimperra jalgi-arazten baitu –
edo Pî-lu landarea,

Baina bere gogo-argiari behatuz, bere larderiaz bekaizti, eta haizera
argirik badatxikala bere ikuspenaren eguerdi betea:

“Oihua! jainkoaren oihu mina! Har gitzala jendearen erdi-erdian,
ez gambaretan,

Eta jendeak hedaturik oiharzuna gutan ukan dezala entzun
daitekeen mugeterano...

Argi-haste batek harresietan margoztaturik, bere udarearen bila
dabilan azala, elezaguke horrelako manu goienetik bazterr-araz!”

Poeta ere gurekin da oraino... Oren hau behar bada azkena,
minuta hau bera, ephe hau!... Eta hoin dembora guti dugu ephe huntan
sortzeko!

“... Eta ngurikatzeke azken buru huntan, agintza bera hats egiten
baita,

Hobeki bazinagike zuhaurek zure hatsa atxikiz... Eta eztua
Ikusleak bere zoria ukanen? Entzuleak ihardestea? ...”

Poeta oraino gurekin... Oren hau behar bada azkena... minuta
hau bera!... ephe hau!

- Oihua! jainkoaren oihu mina gutan!”

IV

I

... Atzo zen. Haizeak ixildu ziren. – Eztea gizatar denik baizik?
“Lehiatuz ezpada, hire poemak horren hatza galduko dik...” Oi
muga, oi ixila! Jainko horren hastioa!

Eta ezteusaren azkorrak ere gure bizidun ahoetan.

Bizitzea horrela bada, ez gaitzerran! (hel egite ederra!...) Baina hi,
oi Haizea, ehoala hire atxikimenduaren haustera.

Betzela, halako itzultzea da ephearen desertuan!... egunaren
erokeria, bapatez, bidetako xurian, eta gure urratsetara handitzen ari,
horrelako ephe baten araura,

Herioaren hantura neurrigabea zuhatz hori handi bat bezala gure
aitzinean.

Horrela bada bizitzea, har dadila! Ha! azken mugarano ereman
dadila,

Haizean aldi ber bakar batez, uhain ber bakar batez bere
lasterrean,

Haren oldea!...

Eta batzuek irri egin behar dela diote – dudaz gibelera igorriko
dituzuea bada? Edo alegia egin behar dela – hutsean ezarri behar direla?

Eta bertze batzuek ezetz diote emaztearen haragian, hala nola
hertsiki Indianoa, bere azalezko piragoan, marrakaz dagon ibaiaren igaiteko
bere alaba besoetarano, haurzaro aldera.

Gaur aski zaiku bekokia zelaren gainera, uhalaren ordu laburrean:
hala nola bide bazterrean, lephoetan, ithurriko gizon sudur-zilo harrizkoa –
eta ilargiaren azken laurden huntarano arrosa xuri baten ixurina bezain mehe,
esproinarene seinalea aurkituko du oraino.

Baina zer! bertzerik deus eztea, eztea gizatar denik baizik? Eta
zeleria usain on hori bera, eta errhauts gorraile hori, ametsetarik, gau bakoitz,

Haren bergitar-tean Zaldizkoaren eskuak oraino derabilana,
elakiketea gutan bertze amets baten phizten,

Zuen iduri horail amazonena ezpada, gure lasterren emazte lagun
samur-rak soina-z usainontzen baituzue “jodhpur”-en ilea?

Arrats batez zuen soinadar garbiekin ezkontzen ginen garraren
jauzietako larrueria sutsuetan,

Eta haizea oihanean nasaitasunezko adar bat zizaikun, gure
gogoetek aldiz bere suak ur-bazter agor batzuetan zaduzkatelarik,

Eta zuek emazteak, zuen emazte handitasuna kantatzen zinaueten
eman nahi ezkinauzkizuegun semeri...

Maitasuna, gure alegietako mustroen kontra arrazoin zinuena
bada?

Urzo auhen batzuek hartuko dute beti Bidariaren gaua.

Eta zein debaldekoa izan zen, beti, zuen erranaldi ezti etxekoen
artean, gauzen urrun-urrun hartan, Zambe-zalde zenbaitetara abian diren ur
handien burrumba haren, beti, goaitatzeal...

Neska handi batzu emanak izan zizazkun, bere ezkontide besoetan
gure ihesaldiek baino ur-suge gehiago desopilatzen baitzuten.

Hor zirena nun zira, gure gauetako usain ixila, oi emazte garbiak
zuen adats ozarren azpitik uzten baituzue bizidunen ixtorio gartsu bat?

Zuek arrats batez orrialde hauen itzulgunean entzunen gituzuenak,
ekaitzetako azken ihaurraldietan, etxe-huntzen begiekilako Leialak, jakinen
duzue zuekin arrats batez

Berriz hartzen ginuela gizakien bidea.

2

Eta gizonak ere badagi gizonen galzadan bere itzala,

Eta hegazte-gietan da gizonaren khea, bidean gizonen joaitea,

Eta hala nola aire berri bat gizonaren urtaroa gure ezpainetan...

Bizitzea hori baldin bada, bizitzea hori baldin bada, beharko dugua
begitar-te bila beherago ibili?

Hala nola krixtail-harrizko zama batez, urdinez bastatu Mendi-
lerroak doazen aldera joan,

Bizkarra bere arkuan lasterrez doanera, ezkatatze eta hezurrezko gai
bat goitituz begitar-terik gabeko gizonaren urratsean?

*

...Harrizko leku batez orhoit niz – mundu huntako mahi gora-gora bat, hartan haizeak baiterama herrestan burdinazko bere hegalaren golde-hortza. Bere harrien izkinetan Garralda bat, hegiz hegi ezarri ostra ohe bat bezala: horrelakoa da leku huntako karatoxa haizearen arraspa-pean. (Ihizi batzuek badute mihi latz eta korail iduri bezalako hura, ezpatariak hartaz amets baitagite.)

Herri gora izen gabeaz orhoit niz, lazturaz argitan eta erran-nahi oroz hutsik. Zergarik batere, ez eta barne-zorrik. Haizeak hartzen ditu bere iragan-dretxoak; lurrak artzain ehe batendako lehentasuna uzten – lur larriagoa, emazte hurrien itzulietan ardi usain baten erdian... Eta Mendia emazte ‘ta gizonen ibiltzez ohoratua da. Eta haren adoratzalek lama umegai batzu eskaintzen dauzkote. Landare arrexinadun batzuek kheztatzen dute. Ihizi odoldu batzuen gibel-erriak airera botatzen. Larruen lantzeko bildu diren gorotzak.

Harrizko herri goraz orhoit niz, han lur zurizko urdategiek, ekaitz aitzin, arratsean argitzen baitute hiri saindu batzuetara hurbiltzean bezala. Eta gau aphala baino lehenago, gaztoki handietan aintziak argitan jarriko dira amarrainendako zilo batzuekin bazterretan. Eta bidariendako atherbe xipi batzu, kopalaz kheztatuak...

- Zeren bila hoake hor?

... Arto beltzeko – ez, ubeleko bizi-modu bat: gar-xori gorraixten arraultze Eskaintzak; olho saldak adarretan; eta zuhurtzia koka zorro handietan hartua.

Ileko eta larrurineko bizi-modu bat: basa-gantz Eskaintzak; ile mitxa girisailuetako bilgorrean; eta emazteak urina naftaz garbiturik bestetako, egurrikatzezko adatsak gernuz malguturik.

Harri eta olzharriko bizi-modu bat: sofre-burdinaki eta sutarri eskaintzak; gresa hutsezko morteyru eta ezterak; eta harri mokorren koropiloan begia hala nola artzainen gau handia aphaintzen duten izarhedoien buruxkan...

- Zeren zigilatzer a hoake hor?

... Ezagutzen zituztet, ixilari eman ihardespenak, eta giltzak ohiko untzierien marrazkian margoztaturik. Harriaren, ilearen eta bihiaren besta handi batzuek bilduko dituzte harrokietako mailetan ikusi diren bezalako loditasuna eta mututasuna: familia oso handien metan biltzea – abere ernari, gresazko gizon, eztera harri batzu baino phizuago eta zabalagoko emazte – azkenik lurraren sartzea estaldura publikoetara...

- Zeren hestera hoake hor?

*

... Urrunago! urrunago! Oihal-izur lodi muskerrezko aldapetan,
Beherago, beharago, Sartaldeari bekoz! lurraren hedatze hortan
guzian,

Erorte ‘ta mailkatze handitan – bertze malda batzuetara buruz,
fagoragarriagok, eta ur-bazter batzuetara, garitatezkoagoak...

Izaite gabeko bertze meta hortarano, gauza hitsezko metatze gora
hortarano, Sartaldean,

Han baitatza izen handi baten garazia – Bakezko Itsasoa... oi
Balboako itsasoa!... Ehoiz ere izendatu behar ezten hura.

(Balboako Nuñez, alde hortara joaiteko gutiziak azkar dira beti!)

Beherago, beharago! munduaren alde huntako mailkatze
lerrokatuetan, doinu batez jausten baita, lerro bakoitzan, Itsasoko mahi
hurbilagoa. (Eta urrunean alde orotarik hor berean dut eta hurbil, eta
urrunean alde orotarik ahaide ‘ta garazia, eta zeharka erraite – aire zabaleko
ene mahira gomitatua eta ene ogiarekin nahasia, ithurrietako urarekin
basoetan, mahi-oihal urdintzen ari denarekin, eta zilhar eta gatzarekin, eta
orstoan artean egunaren urarekin.)

Lasterrago, lasterrago! lurreko azken itxura horietara, krixtail-
harrikiz eta hargorritzko azken ixurtze horietarano, harri-koxkorrezko
ondartz hortarano, gauza bererano, jalgitzen! itsaso bererano jalgitzen!
gizonak hartan bere ihizi daldararia arrats batez aitzinatzen duen indar eta
ospezko himnoa,

Abere zuria, izerdiz ubelara, eta hilkor izaiteko gaitzaz bezala hor
ilundua...

Badakit!... Ezer ez berriz ikus! – Baina oro ezaguna baldin bazata,
eztea bizia berriz ikustea baizik?

...Eta oro berriz ikuste zaiku. Eta beti, oi orhoita, aitzinean ibiliko
zaizkigu, oraino bizi izan ezkinen lur berri orotan.

Lur eta latazko murruan, eta igelsuan, eta teilan, adar edo moskada
kolore, lotsa ber bat beilan dago, beti gure aitzinean doana; eta leku orotan
orstoan itzal higituak harresietan marrazkitzen dituen seinaleak, jadanik
marrazkituak ginituen.

*

Hemen ondartzeta eta lotura. Eta haratago ukho egitea... Itsasoa
Sartaldean, eta oraino Itsasoa, gure asmuzko itxura guzietan jarria.

*

... Urrunago, urrunago, irla bakartuak diren lekura – irla biribil aphaalak, mugagabeko eremuak inguruan, izar batzu iduri – izendatzalen, ethorki emailen irlak; sesu ikurrez estali ondartzak, eta erregen ilherrietan ebatsi burhezurrez...

... Urrunago, urrunago, irla gorak diren lekura – ehun iduri zitzeltzalen eskuetan diren harri-harrozko irlak; izkirioen mixteriora josiak dauden ezpain, ondartzen inguruko harrizut eta ezpain lodi gutieslarietilako aurpegi handiak...

... Eta haratago, arkaitz garbiak, eta bakartasun goragokoak – gizaiduri biphil ezin konsolatuak itsaso zabaleko eurira ikuzten baitituzte bere aurpegi urrikia dariotenak...

... Eta haratago, Sartaldean azkena, han, duela hogeitun urte, azken zuhaxka bizi zen irla: sumendi lurretako ezti-lore bat, gure ustez – Ur libroetako kalaka itsas-artetako litatzetan, eta haizea betikotz basalt-harri zilokatuetan eta harpetan eta gambara hustuenetan, eta sokarro gorritzko metatze handietan...

... Eta haratago dira, haratago, itsasoen eremuan hezearen azken izurdurak. Eta ene poema ere handitzera doala itsaso gainean bere itzalarekin...

... Eta haratago, haratago, hihauz bertzerik zer da – gizakiaz bertzerik zer?... Gauerdiren ondotik itsasoan Eguerdia... Eta gizona bakarrik iguzki-orratz bat bezala uren mahi gainean... Eta herioaren azkorrak zapartatzen dira haren ahoan.

... Eta gizona itsasoan hiltzen da. Arrats batez bere lasterraren erakartzetik gelditzen. Ezteusaren azkorrak oraino gizonaren ahoan...

3

Hire ametsaren une hortan zian gauza gertatu: bapateko zimizta, Gurutzadun bat bezala! – Zarrastatua hire aitzinean, bidean, trebeska,

Arroilatik jauzi den Arrotza bezala Bidariaren zaldia zuti-arazten baitu,

Eta Sartaldera zaldiz zoanari, esku ezin garhaitu batek zamaria lephotik itzul-arazten daukola, eta burua berriz Sortaldera ezartzen. “Zeri ihes egitera hindoan hor?...”

*

Hortaz goga hadila berantago, orhoit hadila! Eta arima, zaldi gora zutituarekin, nora bazterturik atxiki behar dukan,
Arima latzago bat.

4

Itzuliko gira berriz, Larrazken arrats batez, ekaitzaren azken burrumbetan, airez iragaiten diren ur-golkoetako hirurkin lodiak hilen Iguzkira idekitzen dituenean mundrun urdinezko bere hobiak,

Eta orenak zeharka, burdinakiaren hegalean, su muskerrezko izarrarekin lehenbiziko argi ezkarda itzatzten duenean. Eta izerdi muskerrezko jalgitze bat da gure hegalaen heinean,

Eta bapatez, gure aitzinean, ilunbetako marra goraren azpian, gure alaben herri samur argia, urrezko ganibeta bihotzean!

*

“...Adin bateko bururapenarekin hitzemanak ginen. Eta huna gu hemen, ezpainak hetsirik, zuen artean. Eta Haizea gurekin – huntz-orsto arnoa bezalako ekhai kharats eta azkar batez mozkortua;

Ez batere antolamenduko deitua, baina haserrekor eta kantatzen dautzuela: muña haserretuko dautzuet hezurretan... (Zein hertsia izan zen oraino kantu hortako neurria!)

Eta galdea ezta gutan ixildu; ez hartze duguna aphaltu. Ezta gure arrangura ezin akomeatua, eta muga ezta gibelatuko.

Gizon berri batzuez khondu galdeginen dautzugu – gizakiaren arthatzean jakinak diren gizonen, ez gau-egun berdinduen gibelatzean.

Hegal oihua saminik, gure hondamenen gainean, oren berria itzultzen ari da jadanik. Eta bada xixtu berri bat!... Eztezala nehork amets egin, nehork ez amets egin bere arrazako gizonen ihes egiteaz!

Asiako belar guziek letratuaren oinetako zola zurian ezkinetzazkete egintza berri hortarik bazter; ez lore ‘ta argi-haste usain batek Floridetako gau muskerrean...”

- Eta zuek, multzoko eta jendaldeko gizonak, eztitzazuela zapa ene arrazako gizonak. Zuek baino gorago bizi izan dira laidoaren lezetan.

Zuen haragiaren hezurra dira; puntta bera izpirituaren ezpatan. Elhearen erlea bekokian dute.

Eta giza-erranaldi phizuan, hainbertze hizkuntzaz orhatua, bakarrak dira akzentoaren abailaren erabiltzen.

*

...Itzuliko gira Larrazken arrats batez, huntz-orsto gustu horrekin ezpainenetan; mangla eta belar eta lohi gustu horrekin ahakaldetako inguruetan.

Hala nola Draka hura, badiogute, itsasoan bakarrik auhaltzen baitzen adarren soinuari, Sortaldera ekharriko dugua mogimendu zabalago bat ur-golko zabalenetako arkuan sinestea ukanik?...

Itzuliko gira gauza itzulgarrien sailarekin, urtaroak deramatzen aitzinatzearekin, bere ohiko bidetan doazen izarrekin,

Hirur izar ilebetekariak bat bertzearen ondotik baitoaz oraino iguzkiaren aitzin eta ondoko bere etzatean eta gizonen itzulia larritzen denean izarbelak bere goinean diren urteko une hortan,

Eta Haizea, ha! Haizea gurekin, gure xede 'ta egintzetan, gure bermea izan dadila! (Hala nola bertze herrialde batzuetako Mezularia, mendi lerro desertudun handien bertze aldean,

Luzaz laster eta bide egin baitu su haziaren ekhartzeko bere burdinazko lo-belar lorean; edo aitzinatzen baita, diola: hazi berriak zuen lurrendako! Ardantze berriak zuen ibarretako! Eta lekuko jendeak bere gaitzen gainetik zutitzen dira.)

...Edo behar bada airean, argi-haste aitzinean, oraino bere su musekerretan diren portuen gainetik, beharko dugua, aduana ixilen eta bidez aldatzeko geltokien ondotik iragaitean, gero hiri bazterretarik hartuz, eta gibel korrale eta bordaldetarik;

Beharko dugua, argi aitzin, gure arrozpidea etxeko atherano egin? bidetan ehor eztelarik oraino goizeko Herio goiztiarrarekin

Hilherri gabeko hilak azken ondarkinen eta philtzarkarien metetan utzi diren dotrinen eske dabilozan orenaz aharran artzeko...

Eta ordu hartan, oi Eskelaria! bide ez ezagunetan badoa ere egiazko edo alegiazko ametsen erlumea ibai eta ondartzan luzara ibiltzeko, zorionaz hustuak diren egoitza familiadun handien inguruan,

Eta Merkurio ageri da oraino Akherradarren izardegian hurbil, eta Marte bere indar handienean dago behar bada, eder eta zabal, Beauce-ko herrialde gainean,

Eta gerlarien oheak oraino luzaz hutsak izanen dira. (Iragarmen batzu, diote, eginak dauzkute: zaingoa har dezatela eta luzaz atxik gauza beren berritzeari ihardokitzeko.)

*

“...Potorroak, gure betileak, ekaitz ikuspenaren ahurrean, hizki berririk ahozkatzen duzuea ezin-errana khetan dagon idazki handi barreatuetan?

Zuek, geroko ur-bazterrak, gure egintzak nun izkiriaturko diren badakizuenak, eta gure jainkoak zein haragi berrietan agertuko diren,

Ohe bat atxikaguzue ahuldura orotarik garbi, egoitza bat suntsitu den hauts orotarik huts...”

Atzerriko azken lurburuetarik – gizon bat oraino haizera bere buruarekin aholkutan – azken aldi batez eskua goitituko dut.

Bihar lurralde hori utzia... eta gure gibelean oraino urte ‘ta oren ildo guzia, ekaitz zahar horien liga guzia.

Horrara ginoazen arraza orotako gizonen artean. Eta luzaz bizi izanak ginen. Eta luzaz ibiliak. Jendaldeak herriz herri irakurtzen ginituen. Airez iragaiten ginituen ibaiak izendatzen, eta ibar iheslariak, eta bere inguruetan erhien artetik joaiten zizazkun hiri osoak – khonduetako aldatze handietan eta hegalaren gainean lerratuz.

...Eta bururatzekoan uztaidura neurrigabea gurtzen ari zelarik, orenaren bihurgune handi-handi hartan bere ur-bazterrera eta azken portura,

Ikusi dut oraino Hiria aire gaixtoaren azpian gora, Hiri organoduna zimizta-pean abarkatze argitu garbiaren aldaxka multzoa bezala, eta adar bikun profetikoa oraino jendalden bekokiaren bila, karriketako eta portu bazterretako zolan...

Eta horrelako seinaleak orhoitgarri dira – hala nola zortearen xardeka abere akhigarrien bekokian, edo xarde biekilako orbela harri beltzeko bere belhaun-buruan.

5

Zuekin, ete Haizea gurekin, ene arrazako gizonen lauzadan!

“...Bertze adin bateko bururapenarekin hitzartuak ginen. Bertze adin bateko gizonekin aurkitzen girea?

Ukho egite handi publikoak elitzateke aski gure gostuko. Eta galde zorrotza ezta gutan ixildu.

Izan zen harekin antolamendurik ezta guretako.

Baginuen aski garia erakasten zen belhaun geldiegi hetaz,

Harrizko zintzokeria hetaz gure plazetan, eta Ferietako Birjina hetaz Dirutegietako paperretan:

Aski palma eta oliba ekarle hetaz gure sos horiegiatan, hala nola Emperadoren alaba eta emazte Flavia izeneko hek.

Baginuen aski, Lia, familietako jendakia handiez, auzaphezgo handiez; eta Arrazoinaren besta handi hetaz, eta gobernariak ezartzen zituzten arteko ilabete hetaz.

Izkirio joko horietaz badugu bilduma bat ederra. Zuen abere esneki emailek, zuen behitegiek elezazkete gehiago gastuak jasan.

Eta Artxiboetako Palazioek argi hastera goitituko dituztea oraino Hiri gainean harrizko bere medailun hutsak, itsuen betorbain batzu iduri?”

*

Ha! jendeak zuhurtzia soberaz suntsitzen ari zirenean, zein hutsala izan zen gure ikuspena!... Basarbixkak et’ arabarbak xoratzen zituzten zuen harresiak. Lurrak bazion bere René erregen ixtorioa. Eta garia bere gostura jarri zen Kondate handi hetan, su eta itxindiak barreatuz Igandetako organo handiekin, leihoetan emazten loriak ametsaren karrosieriekin nahasten zuen oraino zaldi uztartuen ttirritta soinua...

Alharguntsen alabak zuen larretan, oi mairu-onddo biltzaleak etxetako oihanetan, zuen itsas-bazterretako hondakinen emaitzaz biziko zineztena?... itsas-ondarkin et’ ambara urdin, bertze mira atlantikako – fregata zahar beltz eta urre-koloretako zizeldura horail eta leiho-arte margoztatuak, itsasora idekiak, esku jainkotarrez, zuen ezlon-sari irabazietako eta alhargi-unsarietako – behar bada ere Indiako nexka bulharrekilako branka itxura zenbait, neguko gau batez, Sukaldetan, zuen ugatz-ahizpen ixtorioekin ezartzeko?...

Eta zuek, hiri xipi iragar-ttauladunetako karrikaxka et’ athekamotz gizonak, argira eman dezazkezue bada zuen ardit eta mealla arau onekoak: haraindiko munduko erlikak dira eta zuen Giltzainendako deximak... Laguna, hire oihalaren izartzea egina duka saldegiko alhazean? eta Trufania eginen duka beti magasin-gibelean? Hire arno erautsia, bertze batzuek edan die. Eta bermegoa ezta gehiago burjesa...

*

“Baginian aski, zuhurtzia, hire erran-zahar berun-hari burukoez, hire lukurreria eta hartze bortxazko aldarapenaz. Aski ere Saltzeko eta Tranzilbaniako Hotel horiez, zaharreria saltzale emaztez Abadesen urre ‘ta burdineriazko galeriekilako plazen izkinan – aski aldare ‘ta saloinetako oihaleria hetaz, notariari khondutan hartu familietako denteleria hetaz...

Eta zer erran familiako ontasun ttipi batekin ondorioztatua izana zenaz, etxearekin karrikan ezkontzen zenaz, edo astiko egoitza bazuenaz Elizako plazan? – baserriko mahasti ttipi batek askiesten zuenaz; sagardoi batek probintzian bere urrezko nigarra zariola; eihera zahar batek oihal thindatuaren usainarekin, Alegialariaren zerrendan; erletalde hetsi batek,

behar bada, ibai bazterrean, eta Abadia zahar baten moldeko haren arkuak? – edo hobeki, Molsako bere irabaziekin, lorieta edo erokeria bat beretako antolatzen zuenaz, izkina hautsian edo harburuetan, hiri hil bateko harresien kontra – urre ‘ta burdinazko dentela mahats-aihenez gorderik, ezti eta urrezko loturak barne ingurudunen ahurrean, eta ohetegiko lumatxa, gambara zokoan, Uda arratsetako azken suetara...

Oi epheltasuna, oi ahultasuna! Oi epheltasuna eta hartan gizon gazten bekokia histen ari zen altzoa... Esnerik aski izanen da beti edertasun gurakoaren hagin-hobiendako eta lilipa tipularen... Eta gure alabak berak kaska-pean xorroxten ari direnean, kantatuko duzuea oraino saloin-ttipietako airea, oi mintzaerako garazia hilak?...

Ontasuna ebatsi da, jokoan ezarria bikundu – hondakin orotan gogo berria!... Ha! dardara dadila! dardara dadila!... eta saminik, azota gaitzala! – hala nola soka arrexinaduna arkulariaren adarrezko ditarean.”

*

Aintzirako buztanean lo dago gasnokia. Eta orsto zimelduzko iztila Apolonen urtegian.

Huts dezagutela horia guzia! Satsukeria eta lekazko ogi hori hauts dezagutela. Eta bere gozakerian dauden adinen ondarkin hori guzia!

Ihi-xoriak oraino kanta dezagula ihien artetik ur berrien goititzea...

Eta ur berrien oldeak badagi bere hoxturazko bidea minda eta sarro horietan,

Eta Urte berriak golkoaz ur-ildo arrai bat idekitzen du, eta sesuko atsegin bat bezala da

Abere gazte batzuen hagunean eta gizon harmadun batzuen Arbeletako uhaitzean burbutzikan...

“Sumendietako botakinak! eta higitze hori, iraulde handiaren gibeletik, munduaren mugagabera gauza handi behariduna goititzen duela!...

Oi ondarkindegia! Oi garraioa! Hartan sumendietako botakinen Aingeru beltzak oraino kantatzen baitu bere suzko tuten kantua, lepho eta umuntzien hauste batzuetan!...

Eta Haizea harekin! haun phindardunekilako su handi bat bezala, edo, barraren iragaitean, uhain handienaren jalgitzea bezala! Itsasoan ur muskerretara sartu baino lehen...”

*

...Eta ezta, esker handiz ez! khexua eztabilalakotz oraino alde horietan:

Ortzi uhuria horiekin gure oihanetan, haizearen elhorriarekin eta hegatzarekin larre ‘ta alhor orotan;

Zeru lasterkariaren egintzetan laborarien jazartze batzu iduri, eta laboretxen korraletako lastoetan,

Igitaiaren, zizparen eta barroketako burdina handien artean;

Gatina daldaratze horiekin bihitegietan eta esproin joite horiekin itzalerdi gunetan,

Hala nola gau-egun berdinetako aroan, behortegietan, emazteak herrian har ditzaten behorzainer gomendatzen delarik...

Hego haize bat jeikiko dea suaren kontra. Orduan etsaitasunak herrian. Bihiaren garestitzea. Eta gizon gazten ohea hutsik geldituko da oraino... Eta sortze poetikoak inkesta gai izanen dira...

*

“...Hortarik guzitik dituzue bada indar altxagarria et’ arima hazkarria hartzen.

Eta gizonen lurrean eraikitzeako ordua da. Eta emazten lurrean soro berria.

Lan handi batzu daldaratzen dira jadanik zuen zekaletan eta garien lumatzetan.

Zuen atariak idek Urte berriari!... Sortzeko den mundu bat zuen hatzetan! Atun eta urtarotik urrun!...

Marra zuzena lasterrez doa geroa daldaratzen den maldetan, marra makurra estiloen hiltzeak xoratzen dituen plazetan itzultzen.

- Lehiatu behar! Lehiatu! Haize handienaren hitza!”

- Eta aztalaz jorik, lurrean oraino neurri hori, neurri hori lurrari emanik,

Oraino neurri hori, azkena! Hala nola kantuko Nagusiari.

Eta Haizea gurekin kantuko Nagusi bezala:

“Zuen egintzen izerdia lehiatuko dut. Zuen lanak zohitzerano eremanen ditut.

Eta egintza bera krixtail harria eta sumendi harria bezala zorrozuko dautzuet.

Indar bizi batzuek, oi lankideak, laster badagite zuen emazten sabeletan, hala nola laztagarriak argitan urrez inguratu untzien bazterretan.

Eta zuekin da poeta. Gogamenak zuen artean ditu goaitatzeko dorre batzu bezala. Atxik dezala gaurano, behakoa atxik gizonaren zorian!

Zuendako jendeztatuko dut haren begien lezea. Eta egitera ausartu zen ametsak, egintza bilakatuko dituzue. Eta haren kantuaren trenzari josiko duzue burarano ezteraman jestua...

Oi hoxtura, oi hizkuntzaren ithurrietan berraurkitu den hoxtura!...
Ezta arno berria hotxago, ezta liho berria hotxago.

...Eta hain asti guti zinuten ordu hartan sortzeko!”

6

... Haize handi-handi batzu ziren gizonen lurrean – haize handi-handi batzu gutartean ari,

Bizitzeko hastioa kantatzen baitzaukuten, eta bizitzeko ohorea kantatzen, hal kantatzen eta kantatzaten lanjerreko hegi gorenean,

Eta zorigaitzaren xirula basek bageramatzaten, gizon berri, gure molde berrietera.

Indar handi-handi batzu ziren lanean, gizonen lauzadan – indar handi handi batzu nekez ari

Ohiduratk kampo atxikitzen ginituztela eta urtarotik kampo atxikitzen, oidurako gizon artean, urtaroko gizonen artean,

Eta zorigaitzaren harri basan lurra berremaiten zaukuteka lurra ezkontza berri batzuentako landurik.

Eta handitzen ari diren sagailo batzuen mogimendu hortaz beraz, arrats batez hartzen baigintuzten lur gorako sagailo batzuetan, itsas-zabaleko sagailo batzuetan,

Eta goititzen baigintuzten, gizon berri, orduaren hegi goienera, arrats batez ur-bazter batzuetara ixurtzen ginituzten, han uzten,

Eta lurra gurekin, eta orstoa, eta ezpata – eta erle berri bat han ari zen mundua...

Igerikariak mogimendu beraz horrela, bere igerikaren bertzaldean, zeruaren berritasun bikuna bilatuz, bapatez ondartze geldietako azpildura oinaz hunkitzen du,

Eta mogimendua oraino bere baitan du eta baderama, eztelarik gehiago orhoita baizik – murmurika eta handitasunezko hats izaitearen itzulikarian,

Eta arimako zimarkuek haragiaren azpian badadukate luzaz hats bahitua – gizon bat oraino haizearean orhoitean, gizon bat haizeaz hartua, hala nola arno batez...

Hala nola lur xurizko pitxerretik edan duen gizona: eta lotura ezpainean du oraino,

Arimako hantura ere ezpainean erauntsi bat bezala,
Arimako gustu argala, mihian, buztinazko piastra bat iduri...

Oi zuek ortzantzak berritzen zituztenak, indar biziak eta gogoeta berriak berrituko dute zuen ohatze bizidunena, zorigaitzaren usain kharatsak eztu gehiago zuen emazten oihalaria khotsatuko.

Zuen begitartea jainkoer berriz harturik, zuen argia aroztegieta suer, entzunen duzue, Urtea badiraganean, bersortzeko gauzen oihukatzea mamutxa-hegalen, koxkoen ondarkinetan.

Eta suan berriz ezartzen ahalko dituzue oliopean gibelaren koloreko zafla handiak. Hetaz eginen ditugu irauldeko burdinak, ezagutuko dugu oraino lurra maitasunerako idekirik, lur higikorra, maitasunaren azpian, bikhea baino larriagoko higitze batez.

Kanta ezak, eztimasuna, arratseko eta haize xuriko azken pilpiran, adituak izan diren ihizi batzuen baketze bat bezala,

Eta orai haize handi-handiaren bururapena da. Gaua bertze hegi batzuetan haizeztatzen. Eta lurrak urrunean khondatzen dauzkigu bere itsasoak.

Jainkoak, edariz harturik, gizonen lurrean galtzen direa oraino? Eta iaiozteko gure gai handiak eztabadatuko direa oraino jakintsunen artean?

Oraino Mezulari batzu joanen dira lurreko nexken gana, eta eginen deztaute oraino poetaren atsegineko jantzi behar diren alaba batzu.

Eta gure poemak ere joanen dira gizonen lurrean hara, hazi eta fruitu badakartela bertze adin bateko gizonen leinuan –

Arraza berri bat ene arrazako gizonen artean, arraza berri bat ene arrazako nexken artean, eta bizidun oihua gizonen lauzadan, batetik bertzera, eta gizonetik gizonera,

Herioak dadukan desertuko bazter urrunetarano!...

Bortizkeriak lurrean gizonen ohea berritua ukan zuenean,
Zuhatz zahar-zahar batek, orstoz gabetua, hartu zuen berriz bere erran zaharren haria...

Eta lerro handiko bertze zuhatz bat igaiten ari zen ordukotz lupeko India handi batzuetan,

Bere orsto mañetika eta fruitu berrizko zamarekin.

1945

En 4ème de couverture:

Egiazko izenaz Alexis Léger Saint Léger (Antilletako Guadalupan sortua 1887-an, Var departamenduko Giens-en hila 1975-an), diplomata eta Quai d'Orsay-ko Segeretari Orotako 1939-rano, orduan Alemanen Frantzian jartzeak Estatu-Batuetan egoitera bortxatu baitu gerla bururatu arteo, Saint John Perse-k, "XX-garren mendeko poeta handiena" L. Aragonen 1975-ko hitzen araura, Literaturako Nobel Saria ukana du 1970-ean bere poesiako lanarendako. 1907-an hasi eta bildumaz bilduma 1958-rano jarraiki zuen lan hortarik, euskal-irakurleak aurkituko du hemen hirur bildumen itzulpena: *Laudorio* (1910-1911), Antilletako haurzaroaren orhoitzapenetik sortua; *Igaitte* (1924, "Saint John Perse" izenpetu duen lehenbizikoa), izenburua Xenophon ixtoriolari grekari harturik, "irabazte, igaitte" erran-nahi bikunean, Orienteburuko egonaldi diplomatiko eta bidaietan hartu duen mundu urrunduen ezagutzari lotzen dena; *Haiḡe* (1945), XX-garren mendeko erdigunea inharrosi duen hondamen izigarriaren oiharzun poetikoa. Goizik hautatu zuen "berset" moldean, ez hitz laxo ez neurtitz, Saint John Perse-en poesiak, haren aroko jakitate guziek hazten duten hiztegi ezin aberatsagoaren bidez, kantatu nahi ditu, estilo goran, herri eta mendetako muga hertsiaik gaudituz, munduaren eta biziaren sendimendua eta ezagutza bere bete-betean.

Saint John Perse (Guadeloupe 1887, presque-île de Giens dans le Var 1975), de son vrai nom Alexis Léger Saint Léger, diplomate et Secrétaire Général du Quai d'Orsay en 1939, quand l'occupation allemande le force à s'installer aux Etats-Unis jusqu'à la fin de la guerre, "le plus grand des poètes français du XXe siècle" selon les mots de Louis Aragon en 1975, a reçu le Prix Nobel de Littérature pour son œuvre poétique en 1970. De celle-ci, commencée en 1907 et poursuivie de recueil en recueil jusqu'en 1958, le lecteur bascophone trouvera ici la traduction de *Eloges* (1910-1911), inspirée de son enfance antillaise, *Anabase* (1924), première œuvre signée de son nom en littérature "Saint John Perse", avec un titre pris à l'historien grec Xénophon, au double sens de "conquête, montée", en relation avec la connaissance des mondes lointains acquise lors de ses séjours diplomatiques en Extrême-Orient et ses voyages, et *Vents* (1945), écho poétique de la terrible catastrophe, la guerre mondiale, qui vient d'ébranler le milieu du XXe siècle. Sous la forme tôt choisie du verset, qui n'est ni prose ni vers, la poésie de Saint John Perse, dans un vocabulaire d'une richesse extrême nourrie de tous les savoirs de son temps, veut chanter, en style haut, par-dessus les limites étroites des pays et des siècles, l'expérience du monde et de la vie dans leur plénitude.

J.- B. Orpustan